

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Mikel Buil García jaunak eta María Teresa Sáez Barrao andreak Ingurumena Babesteari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ingurumena Babesteari buruzko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Ingurumena Babesteari buruzko Foru Lege proposamena

AURKIBIDEA

Zioen azalpena

I. titulua.- Xedapen orokorrak.

II. titulua. Antolaketa administratiboa/Nafarroako Ingurumenaren Institutua.

III. titulua. Informazioa eta parte-hartze publikoa.

IV. titulua. Ingurumena aldezteko jarduerak sustatzea.

I. Kapitulumua. Ingurumena babesteko planak eta programak.

II. Kapitulumua. Ikerketa, hezkuntza, prestakuntza eta zabalkundea.

III. Kapitulumua. Ingurumena kontserbatzeko foru funtsa.

V. titulua. Ingurumenaren arloko esku-hartze administratiborako/ingurumenaren arloko prebentzio eta kontrolerako tresnak.

I. Kapitulumua. Xedapen orokorrak

II. Kapitulumua. Ingurumen-ebaluazioa.

1. atala. Ingurumen-ebaluazio estrategikoa.

2. atala. Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa.

III. Kapitulumua. Ingurumen-baimen integratua.

IV. Kapitulumua. Jarduera sailkatuaren udal lizentzia.

I. Kapitulumua. Erantzukizunpeko adierazpena.

VI. titulua. Ingurumenaren arloko erantzukidetasuna eta lankidetzak.

I. Kapitulumua. Ingurumena aldezteko jarduketak.

II. Kapitulumua. Ingurune fiskoa eta ingurumena babesten dituen pertsona.

III. Kapitulumua. Ingurumena hobetzeko akordio boluntarioak.

IV. Kapitulumua. Kontrol boluntarioak.

V. Kapitulumua. Nafarroako Foru Administrazioaren ingurumen-kalitatearen bereizgarria.

VI. Kapitulumua. Erregistroa.

VII. titulua Baliabide naturalak babestea.

VIII. titulua. Ingurumen-erantzukizuna.

IX. titulua. Betearazte-neurriak.

X. titulua. Zaintza eta ikuskapena.

I. Kapituluak. Xedapen orokorrak

II. Kapituluak. Ingurumen-ikuskapenak.

III. Kapituluak. Ingurumen-ikuskapeneko planak eta ingurumen-ikuskapenak betearaztea.

XI. titulua. Ingurumen-arloko legezkotasuna babesteko eta leheneratzeko neurriak.

I. Kapituluak. Jarduerak legeztatzea.

II. Kapituluak. Kautela- eta aseguramendu-neurriak.

III. Kapituluak. Ingurumen-arloko legezkotasuna leheneratzeko neurriak, neurri zuzentzaileak eta aldarazitako errealitate fisikoa konpontzeko eta kalte-ordainak emateko betebeharrak.

XII. titulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

I. Kapituluak. Arau-hausteak eta zehapenak

1. atala. Kutsaduraren prebentzioa eta kontrol integratuaren eta ingurumen-ebaluazioaren arloko arau-hausteak eta zehapenak.

2. atala. Ingurumen-baimen integratuaren menpeko jardueren arloko arau-hauste eta zehapenak

3. atala. Jarduera sailkatuaren lizentziaren arloko arau-hauste eta zehapenak

4. atala. Erantzukizunpeko adierazpenarekin lotutako arau-hauste eta zehapenak

5. atala. Bestelako arau-hauste eta zehapenak

6. atala. Arau-hauste eta zehapenentarako xedapen amankomunak

II. Kapituluak. Zehapen-prozedura.

Xedapen indargabetzaile bakarrik.

Azken xedapenak.

ZIOEN AZALPENA

I

Ingurumena babestea eta sustatzea, garapen jasangarriko eredu bat ezartzea, gure garaiko gizartearen –eta, horrenbestez, Zuzenbidearen– kezka bat da. Zuzenbideak fideltasunez islatu ohi ditu gizartearen kezkak, eta horixe da Ingurumen Zuzenbidea egotearen eta gaur egun duen garapenaren funtsezko arrazoia.

Ingurumenaren degradazioa gizateriak daukan arazo nagusietako bat da, eta Europako estatu guztien jomugan dago natur sistemen osotasuna, jasangarritasuna eta berritzea bermatzeko naturaren orekaren arauak errespetatzeko beharra.

Espainiako Konstituzioak bultzada aipagarri bat eman zion ingurumenaren babesari, 45. artikuluan jaso baitzuen ingurumen egokirako eskubidea, ingurumena kontserbatzeko betebeharrak eta botere publikoei zuzendutako zenbait agindu, zeinek botere horiei ingurumena babesteko neurri batzuk hartzea eskatzen baitiete. Halaber, arlo honetarako eskumenen sistema bat ezarri zuen, oinarriko araudia Estatuari dagokiola irizten zuena.

Bestetik, ageri-agerikoa da Europako Erkidegoko zuzenbideak esparru honetan duen eragina, zeren eta eratze itunek ingurumen-ekintzaren oinarriko printzipioen berriazko aitortza jaso baitute eta Europa mailako arau-produkzio oso-oso zabala egon baita, Estatuak eta Foru Komunitateko erregulazioak baldintzatu duena.

Nafarroako Foru Komunitatean Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen onepenak (eta bera garatzeko araudiak) ingurumenean eragina izan dezaketen jardueren aurretiazko kontrolerako hainbat teknika jaso zituen, jarduera horiek ikuskatzeko araubide bat aurreikusi zuen, eta, orobat, zehapen-araubide bat ezarri zuen.

Arau horrek zentzuzko denbora batez indarra izan ondoren lortutako esperientzia badaukagunez, garrantziko arrazoiak badaukagu arlo honetako gaurkotzea eta arau-aldaketa sustatzeko, bai eta geroztik onetsitako Europako Erkidegoko edo/eta Estatuak araudiari egokitzeko eta Nafarroako gizarteak gai honetan daukan sentiberatasun gero eta handiagoari egokitzeko ere.

Bestetik, beharrezkotzat jotzen dugu foru lege horren aplikazio praktikoan antzeman diren gabezia edo/eta hutsuneak zuzentzeko, bai eta erregulazioa ingurumenaren arloko jarduera publikoaren oinarrian dauden printzipio berrien arabera doitzeko ere.

Bestetik, indarrean diren Estatuko araudiak, erkidegokoak eta are nazioartekoak ere, martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea onetsi ondoren emandakoak, gomendagarri eta beharrezko egiten dute foru araudia haietan jasotakoaren arabera egokitzea, foru-erregulazioak gaurkotasanik gal ez dezan.

Europako araudiari dagokionez, aipa liteke Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko abenduaren 13ko 2011/92/EB Zuzentaraua, zenbait proiektu publikok eta pribatuk ingurumenaren gainean duten eragina ebaluatzeari buruzkoa.

Besteak beste, honako arau hauek ere aipa daitezke: Ingurumen-arloko Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legea; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua; Ingurumen-arloan informazioa eskuratu, herritarrek parte hartu eta justizia lortzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legea (informazioa eskuratzeko eskubidea Aarhus Hitzarmenak ere arautzen du); Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea; edo Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua.

Azkenik, ezinbestekoa da ingurumen-babesari buruzko erregulazioan perspektiba berri bat hartzea. Uste dugu ingurumenean eragin negatiboak sor ditzaketen jardueren prebentzio- eta kontrol-tresnen erregulazio hutsa (eta eman beharreko konponbidearen erregulazio hutsa, egiazki ingurumen-kaltea gertatzen den kasuetan) ez dela jada nahikoa, eta gai honetan jada herritar guztiak tartean sartu behar direla. Ez da nahikoa (oraindik ere beharrezkoa den arren) prebentzioaren ikuspegitik arautzea; ingurumenaren gaineko eragin positiboak sustatzera zuzendutako ikuspegi bat ere gehitu beharra dago.

Ez da ahaztu behar Konstituzioaren 45. artikulua eskubide bat ez ezik, natur ingurunea kontserbatzeko betebeharra ere jasotzen duela. Hartara, bada, ezinbestekoa da perspektiba positibo batetik sustatzea bai ingurumen-jarrera arduratsua izatea, bai eta herritar guztiak gai honetan inplikatzeko ere, haurrengandik hasita, guztiok ingurumen hobetzen laguntzeko beharrari buruzko kontzientzia kolektibo bat sortuz, eragin negatiboak sortzeko debekuari buruzko kontzientziaz harantzago.

Horrek eskatzen du hainbat mekanismo erregulatzaile, honako bide honetara joko dutenak: lehenbizi, herritar guztien eskura jartzea ingurumenaren arloko informazio guztia, zeren eta informazio egokirik, egiazkorik eta osorik eduki gabe, nekez izan ahalko baikara kontziente dagoen egoeraz, ez eta ingurumena hobetzen lagun dezaketen edo horretarako hobeagoak izan litezkeen neurriez ere.

Ildo beretik, beharrezkotzat gertatzen da arlo honetan hezkuntza- eta prestakuntza-neurriak ezartzea; hain zuzen ere, herritar guztiei zuzendutako neurriak, haurrengandik hasi (hezkuntzaren arloko neurrien kasuan) eta edozein heldurenganaino (horiei zuzendu beharko litzaizkieke prestakuntza-neurriak).

Azken batez, ezinbestekoa da, orobat, ingurumena aldeztuko edo babesteko jarduerak sustatzeko tresnak aurreikustea, eta ondasun kolektibo hori hobetzea lortzen duten pertsona edo talde guztiak saritzea, jarduketa horien eragin positiboek onura ekarriko baitiote gizarte osoari.

II

Foru lege honetan jasotako erregulazioa hamabi titulutan banatzen da; horietan, modu sistematikoan lantzen dira bai Foru Komunitatean gure ustez ingurumena hobetzen nabarmen lagun dezaketen jarduketa eta tresna askotarikoak, bai eta exekuzio-neurriak, zainketa- eta kontrol-neurriak eta, azkenik, arau-hauste administratiboa izan daitezkeen ez-betetze kasuetarako zehapen-neurriak ere.

Foru lege honen I. tituluan xedapen orokorrak jaso dira; horien artean sartzen da, besteak beste, xede, tresna eta printzipioen aipamen xehakaturia, bai eta herritarrek eta administrazio publikoek dauzkaten eskubide eta betebeharren aipamena ere.

Foru legearen II. tituluan Nafarroako Ingurumenaren Institutua sortzea aurreikusten da; foru lege honek ematen dizkion eskumen eta ahalmenak hartu beharko ditu bere gain institutu horrek.

Ondoren, III. titulua informazioa eta parte-hartze publikoa arautzen ditu, eta zehaztapen batzuk jasotzen ditu eskubide horiek egikaritzeko moduari buruz eta administrazioek haien inguruan jarduteari buruz.

Informazioa eskuratzea eta, horrenbestez, parte-hartze publikoa herritarrentzat praktikoagoa, errazagoa eta eraginkorragoa izan dadila bermatzeko, garrantzitsutzat jo da Nafarroak Ingurumen Informazioaren Sarea sortzea, zeren eta ingurumenari buruzko informazio garrantzitsuena toki berean edo sare berean eskura jartzea, modu ordenatu eta sistematizatuan, lagungarri gertatuko baita errazago izan dadin ingurumen informazioa publikoa izatea.

Halaber, botere publikoei eskatzen zaie ingurumen arloko elkartegintza susta dezaten, zeren eta muntako tresna bat izan baitaiteke parte-hartze publikoa egikaritzeko (bai eta ingurumena aldezteko beste jarduera batzuk ere).

IV. tituluak hainbat tresna jasotzen ditu ingurumena aldezteko jarduerak sustatzeari begira.

Hartara, jarduketan plangintza eta programazioa arautzen dira, zeren eta esku-hartze ordenatu eta planifikatu batek hobeki lagunduko baitu arlo honetan planteatzen diren helburuak lortzeko, jarduketa isolatu eta koordinatu gabe batzuek baino.

IV. titulu honetan, halaber, jasotzen da ingurumenaren arloko ikerketa, hezkuntza, prestakuntza eta zabalkundea sustatu behar direla, erabilgarri dauden teknikak modu jarraituan hobetzera (horrek, zalantzarik gabe, berekin ekarriko du haiek ezartzen dituzten jarduerak ingurumen-afekzio txikiagoa edukitzea) eta jokabideen aurreko sentsibilizatza eta haiek aldatzera bideratutako neurri gisa.

Azkenik, aurreikusten da ingurumena kontserbatzeko foru funtsa sor dadila, ingurumenaren arloko prebentzio, hobekuntza edo leheneratze- jarduketak egikaritzeko funts publikoak badaudela bermatzeko neurri gisa. Foru funts horrek elikagai izanen dituen baliabideak zehazten dira, bai eta haiei emanen zaizen erabilera ere.

V. tituluak, xehetasunez arautzen dira ingurumenean esku hartzeko tresnak, zeinak ingurumenean eragin aipagarriak izan ditzaketen plan, programa, proiektu eta jardueretan aplikatu beharko baitira.

Foru lege honek ingurumena kontrolatzeko lau teknika jasotzen ditu: ingurumen-baimen integratua, ingurumen-ebaluazioa (ingurumen-ebaluazio estrategikoa eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa hartzen ditu), jarduera sailkatuaren lizentzia eta erantzukizunpeko adierazpena.

Lehenengo biak nahitaez sartu beharrekoak dira, zeren eta Estatuko oinarrizko legeria garatzen baitute.

Komeni da gogoraraztea ezen 2013. urtetik aldatu egin direla plan, programa, proiektu eta jardueren gaineko ingurumen arloko esku-hartzea arautzen duten Estatuko oinarrizko arauak. Zehazki, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea onetsi da, zeinak plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautzen baitu; eta aldatu da, halaber, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuen arloko araudia (bai eta ekainaren 11ko 5/2013 Legea, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretua eta abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua ere, zeinak onesten baitu Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuen Legearen testu bategina).

Arau hauen oinarrizko izaerari erreparatuta, eta gai aldakor bat denez, Europako araudia edo Estatuko oinarrizko araudia betetzeari begira foru arauaren aldaketak etengabe egin behar izatea saihesteko, foru lege honek ikuspegi praktiko eta zuhurra eduki nahi du, eta gai hauei buruzko Estatuko testurako blokeko bidalketa bat egiten du, nahiz eta berezitasun batzuk gehitzen dituen Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenen esparruan.

Aitzitik, gainerako tresnen erregulazio osoa eta exhaustiboa egiten da, zeren eta ez baitaude araututa Estatuko ordenamendu juridikoan, lehenengo bi tekniketara jasota ez dauden baina ingurumenean eraginak sor ditzaketen jarduerari dagokienez.

VI. tituluak, ingurumenaren arloko erantzukidetasuna eta lankidetzako hainbat neurri sartzen dira, ulertuta ingurumenaren defentsa ezin dela mugatu hartan eragin negatiboa izan dezaketen jarduera profesionaletan edo enpresa-jardueretan esku hartzera edo haiek mugatzera; izan ere, hartan eragin positiboa duten bestelako jarduketetara ere zabaldu behar da, are herritar guztiak –ez soilik aipatutako jardueren titularrek– gara dezaketen jarduketetara ere.

Berritzaileenak direnen artean, ingurumena aldezteko garatzen diren jarduketa judizialeterako laguntza arautzen da, zeren eta ulertzen baita babestu egin behar direla beren ahaleginarekin gizarte osorako onura bat –esate baterako, ingurumena hobetzea– dakarten guztiak.

Halaber, bestelako neurri batzuk arautzen dira, zeinekin ingurumenerako onura batzuk lortu baitaitezke; horren adibideak dira ingurune fisikoaren eta ingurumenaren laguntzailearen izaera lortzea, ingurumena hobetzeko borondatezko akordioak izenpetzea, borondatezko kontrolak onartzea eta ingurumen-kalitatearen adierazgarria ematea.

VII. tituluak, hainbat natur baliabideren erregulazio orokor bat edo “printzipioetakoa” jasotzen da; haiek xehetasunez garatzen dituzten arauetara jo beharra dago erregulazio hori zehatz osatzeko.

VIII. tituluak garatzen du, orobat izaera orokorrez, ingurumen-erantzukizuna, eta pertsona juridiko publikoen erantzukizunari buruzko aurreikuspen batzuk jasotzen ditu.

Eta IX. tituluak hainbat neurri jasotzen ditu hartutako prebentzio-, babes-, berrezartze- edo leheneratze-neurriak betearaztea lortzeko, baldin eta haiek betetzearen ardura duen pertsonak bere borondatez halakorik egiten ez badu.

X. eta XII. tituluak foru lege honetan araututako jarduerak zaintzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko jarduerak erregulatzen ditu, bai eta zehapen-araubidea ere, hurrenez hurren. XI. tituluak, berriz, ingurumen-arloko legezketasuna babesteko eta leheneratzeko neurriak arautzen ditu.

Zaintzari, kontrolari eta ikuskatzeari dagokienez, berriz, aurreikusten da jarduketa horiek behar bezala planifikaturik egon behar dutela, eta hauta daitezkeen modu desberdinak, ingurumen-ikuskatzearen ahalmenak eta ikuskatze-jarduketak garatzeko eta gauzatzeko modua arautzen dira.

Bestalde, garrantzitsutzat jo da behar adinako prestakuntza eta espezializazioa ematea ingurumen-ikuskatzeari, haren jarduketak eraginkorragoak izan ahal daitezen; eta horrekin, ingurumena hobeki babestea lortzen da.

Halaber, aurreikusten da ingurumenaren arloko ikuskatzaileek aholkua eta informazioa emateko jarduketak egin ahal izatea (ez soilik kontrolekoak), zeren eta prebentzio-lanarekin saihestu ahalko bailituzke ingurumenaren zenbait kalte; hain zuzen ere, hartan lan egiten duten eragileek aplikatzekoa zaien araudia edo/eta jarduketaren eraginak ez ezagutzetik hel daitezkeenak.

XI. tituluak kokatuta dago, lehenbizi, jarduketak legezkatzeari buruzko araudia, zeinera jo beharko baita legezkatzea gauzatu ahal den guztietan.

Bestalde, titulu horrek berak ingurumenari kaltea eragitea saihesteko har daitezkeen kautela-neurriak biltzen ditu; horrenbestez, prebentzio-izaera edo alde aurretikoa izanen lituzkete neurri horiek, eta hartuko lirarteke kalte horiek gertatzeko arriskua badagoela egiaztatzen diren.

Halaber, aseguramendu-neurriak eska litezke, ingurumenari kaltea eragin aurrekoak, eragin litezkeen kalteak konpondu edo gutxitzea bermatzeko.

Titulu honetan jasotako gainerako neurriak hartu beharko dira, kasua bada, ingurumen arloko legeria urratu ondoren edo/eta gisa horretako kalte bat eragin denean.

Neurrien multzo horren barruan sartzen dira ingurumen-legeria leheneratzeko neurriak, neurri zuzentzaileak, aldarazitako errealitate fisikoa berrezartzeko betebeharra eta eragindako kalteengatiko kalte-ordaina.

XII. tituluak arlo honetako arau-hauste administratiboak diren jokabideen erregulazio oso xehea jasotzen du, bai eta arau-hauste horiek ekar ditzaketan zehapenena ere. Erregulazio hori zenbait bloketan xehakatzen da, argitasun handiagoa lortzeko eta halako jokabideak izan dituzten pertsona guztiek argiago ezagutu ahal dezaten arau-hausteak zein diren eta horietako bakoitzari zein zehapen dagokion; halaber, ezagutu ahalko dituzte modu osagarrian ezarri ahal zaizkien zehapenak, eta gogorarazten zaie zehapena ordaintzeak ez dakarrela berekin salbuetsita egotea kaltetutako ingurumena berrezartzetik edo eragindako kalte-galeren kalte-ordainak ematek.

Zehapen-izaerako aurreikuspenak osatzeko, zenbat zehaztapen jasotzen dira zehapen-prozedurei buruz eta zehapenak ezartzeko eskumenari buruz.

Azkenik, lege honen azken xedapenetan, lege-garapenaren arloko zenbat betebeharrak jasotzen dira. Nabarmenezkoa da “Kodetze Batzordea” sortzeko beharrari dagokiona; batzorde horrek bere gain hartuko du “Ingurumenaren Kodea” egiteko lana, eta kode horretan jasoko da Foru Komunitateko ingurumen-araudia, orain hainbat arautan barreiatuta dagoena, batzuk orokorrak eta beste batzuk alor jakin batekoak. Horren helburua da araudi hori bateratzea eta sistematizatzea, hura aplikatu behar dutenek errazago ezagutu eta aplikatu dezaten.

I. TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da ingurumenaren babeserako arau-esparru bat ezartzea, ingurumena norbanakoen eta kolektiboen eskubideak eta betebeharrak sortzen dituen ondasun bat baita.

2. artikulua. Xedeak eta tresnak.

1. Hauek dira foru lege honen berezko xedeak:

- a) Ingurumenaren babes ahal den handiena lortzea, garapen jasangarri bat bermatuta, egungo premiak aseko dituen etorkizuneko belaunaldiek beren beharrei erantzuteko izan beharreko gaitasuna arriskuan jarri gabe.
- b) Hiri-ingurumenaren zein landa-ingurumenaren jasangarritasuna bermatzea, eta natur baliabideen erabilera efizientea sustatzea.
- c) Ingurumen-inpaktuak ahal den guztian gutxitzea.
- d) Ingurumena leheneratzea kalteak jasan duen horretan.
- e) Biodibertsitatea kontserbatzea eta eraberritzea.
- f) Ingurumen gaitan baimenak emateko eta txostenak egiteko prozedurak erraztu eta arintzea.
- g) Ingurumenaren babesean gizartea gehiago inplika dadila eta sentiberatasun handiagoa izan dezala lortzea.
- h) Ingurumenaren arloko hezkuntza eta prestakuntza sustatzea, hezkuntza maila guztietan.
- i) Ingurumenaren ezagutzarekin zerikusia duen guztian ikerketa eta I+G+Ba sustatzea.
- j) Ingurumenaren arloko legeria betetzen dela kontrolatzea eta zaintzea, eta haren ez-betetzeak saihestea.

2. Aipatutako helburuak erdiesteko, honako tresna hauek erabiliko dira:

- a) Kutsadura mota guztien eta atmosferan, uretan, lurzoruan eta dibertsitatean zenbait jardura publikok zein pribatuk duten inpaktuaren prebentzioa, gutxitzea eta kontrola.
- b) Pertsona juridikoen zein fisikoen aztarna ekologikoa gutxitzea.
- b) Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoen politika guztiei dagozkien ingurumen arloko gogoeten integrazio eraginkorra, bereziki jardueren, hirigintzaren eta ondare historikoaren babesaren plangintzan; halaber, landa-ingurune jardueren eta ingurumenaren arteko oreka zaintzea eta sustatzea.
- c) Ingurumenaren arloko aldagaiak sartzeko foru lege honen menpekoak diren plan, programa, proiektu eta gainerako jarduerak idatzi, abian jarri eta betearazterakoan, ingurumenean eragin aipagarriak ekar ditzaketen jardueri dagozkienean.
- d) Ingurumen-politika gainerako politika sektorialen plangintzarekin eta programazioarekin integratzea.
- e) Ingurumena babesteko jardura pribatuak, ingurumenaren arloko elkarteak eta erantzukizun sozial korporatiboa sustatu eta laguntzea.
- f) Zenbait plan, programa, proiektu, jardura eta instalazioen aldez aurretiko ebaluazio eta kontrol administratiboa.
- g) Ingurumenean eragin daitezkeen kalteak zuzentzeko neurriak ezartzea; eta, kasua bada, eragindako kalteak konpontzea edo horietarako ordaina ematea.
- h) Jardura administratiboaren gardentasuna areagotzea; ingurumen-informazioaren eta herritarren parte-hartzearen arloko trukerako, zabalpenerako eta publikizaterako mekanismo eraginkorrak ezartzea.
- i) Eskoletako curriculumetan ingurumenaren babesarekin lotutako gaiak sartzeko, eta jarduerak egitea herritarrei gai honi buruzko prestakuntza emateko.
- j) Ingurumenaren arloko ikuskatzerako baliabideak, mekanismoak eta prestakuntza ematea, eta ikuskatzaileak ingurumenaren hainbat arlotan espezializatzea.
- k) Zehapen-araubide oso eta eraginkor bat ezartzea.

3. artikulua. Printzipioak.

1. Honako hauek dira ingurumenarekin loturaren bat duten administrazio publikoen eta herritarren jardura gidatuko duten printzipioak:

- a) Atzera ez egitea ingurumena babesteko graduan, ez eta hura babesteko hartutako neurri zehatzetan ere.
- b) Prebentzioa, zeinak eskatzen baitu ingurumenari kalterik eragitea saihesteko behar diren neurriak hartzea; bereziki kalte horien jatorrian.

c) Zuhurtasun edo kautela: horietatik heldu da ingurumena babesteko neurriak hartzea lehenengo ebaluazio zientifiko bat egin ondoren, baldin eta ebaluazio horretan aipatzen bada arrazoiak badaudela ulertzeko jardueraren garapenetik erator litezkeela ingurumenerako, biodibertsitaterako eta pertsonen osasunerako arriskutsu suerta daitezkeen eraginak.

d) Ingurumenean elkarreragiten duten eragile guztien eta, oro har, gizartearen erantzunkidetasuna: aktiboki inplikatu eta konprometitu beharko dira haren babesean.

e) Kutsatzen duenak ordaintzen du: honen arabera, mehatxuen edo berehalako arriskuen prebentziotik eta ingurumen-kalteen zuzentzetik datozen kostuak haien erantzule izan diren pertsoneri edo entitateei dagozkie.

f) Ingurumenerako kaltegarri diren eraginak konpontzea edo zuzentzea: honetatik dator behar diren neurriak hartu behar direla lortze aldera ondasunak atzera ekarriko direla, ahal den gutxian, ingurumenean sortutako kalteen aurreko izaerara eta egoerara.

g) Informazioa, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea: honen arabera, bermatu beharra dago herritarrek libreki eskuratu ahalko dutela informazio objektibo, fidagarri eta zehatza, eta informazio horrek aukera emanen diola gai honetan inplikaturako sektore sozialen parte-hartze efektiboa goiz gertatzeko.

h) Aurrerapen teknikoari egokitzea, ingurumenaren arloko ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatuz; helburua da jardueren kudeaketa eta kontrola hobetzea gutxien kutsatzen duten eta ingurumenari kalte txikien eragiten dioten teknika baliagarri onenak erabiliz.

i) Ingurumena politika guztietan integratzea.

j) Jarduketa administratiboaren subsidiariorotasuna.

k) Mugen eta prebentzio-, zuzentze- edo kontrol-neurrien arteko proportzionaltasuna, ingurumenerako saihestekoa den eragin kaltegarria edo lortu nahi den ingurumen-onura direla eta.

2. Administrazio publikoek aintzat hartu beharko lukete, bereziki, ingurumen-integrazioaren printzipioa beren eskumenen esparrukoak diren politika eta ekintza guztietan, honako hauetarako beharrezkoak diren neurriak hartuz:

a) Politikan edo jarduketan ingurumen-betekizunak eta -baldintzak betetzea, hasierako planteamendutik hasi eta haiek betearazten bukatu bitartean.

b) Politikak edo jarduketak ingurumenean izan ditzakeen zuzeneko edo zeharkako eraginak identifikatu, deskribatu eta ebaluatzea, zioak eta guzti eta kasu jakin bakoitzari erreferentzia eginez, bai eta hura egituratzen duten elementuei dagokienez ere.

3. Aurreko apartatuan jasotakoaz gainera, ingurumen-integrazioaren printzipioa betez, edozein foru lege onetsi aurreko izapidetan, ingurumen-inpaktuari buruzko txostena eman beharko da.

4. Administrazio publikoek, halaber, jarduketa administratiboan eta herritarrek hartan duten parte-hartzearen koordinazioko, lankidetzako, leialtasun instituzionaleko, publizitateko eta gardentasuneko printzipioen arabera jardun beharko dute. Halaber, behar diren laguntza eta lankidetzak eman beharko dira jarduketan eraginkortasuna eta koherentzia bermatzeko, bereziki ingurumen-kontrolerako tresnak izapidetzeari dagokionez.

4. artikulua. Eskubideak.

1.- Administrazio publikoek ingurumen-politika egokiak sustatu beharko dituzte pertsona guztien ingurumen osasungarria izateko eta hartaz gozatzeko eskubidea bermatze aldera.

2.- Pertsona orok du ingurumen-informaziorako eskubidea, ordenamendu juridikoan ezarritakoari jarraituz, eta administrazio publikoek eskubide hori behar bezala egikaritzea eragozten edo zailtzen duten oztopo guztiak kendu beharko dituzte.

3.- Pertsona orok du ingurumen-garrantzia duten erabakiak direla-eta garaiz parte hartzeko eskubidea, zuzenean edo ingurumen-babeserako elkarrean bitartez, arauak ezarritako baldintzetan.

4.- Publikoa izanen da, dagokion araudian ezarritako baldintzetan, foru lege honetan eta hura garatzeko eta aplikatzeko ematen diren xedapenetan ezarritakoa bete dezaten Nafarroako administrazio publikoak behartzeko ekintza.

5. artikulua. Betebeharrak

1.- Foru lege honen beste titulu batzuetan jasoko diren betebeharrak ezertan galarazi gabe, bai administrazio publikoek, bai pertsona fisiko zein juridikoek honako eginbehar hauek bete beharko dituzte:

- a) Ingurumena kontserbatzea.
 - b) Jarduera, plan edo programa mota bakoitzari dagokion baimen-tresnaz baliatzea halakoak ezarri aurretik, edo aginduzkoa den ingurumen-kontrolaren menpean jartzea, bai eta araudian ezarritako edo aurreikusitako prebentzio-neurriak, neurri zuzentzaileak edo informazioa emateko neurriak betetzea ere.
 - c) Ingurumen-kontrolaren menpeko edozein jarduera, plan edo programaren edozein aldaketa komunikatzea; bereziki, jardueraren titulartasunaren eskualdatzea edo haren aldi baterako zein erabateko geraraztea.
 - d) Ingurumenean eragina izan dezakeen edozein gorabehera edo istripu komunikatzea.
 - e) Foru lege honetan edo ingurumenari buruzko gainerako arauetan ezarritako beste edozein komunikazio-betebehar betetzea.
 - f) Dagokion pertsona edo entitate orori prebentzio-neurriei, neurri zuzentzaileei edo kontrol-neurriei buruz informatzea.
 - g) Zaintza-, ikuskatze- eta kontrol-jardueretan laguntzea.
 - h) Hobekuntza bat ekar dezakeen edozein jarduketatan edo ingurumen-izaera duen kalte bat saihesten laguntzea.
2. Administrazio publikoek betebehar zehatzak ezarri ahalko dituzte aurreko apartatuan azaldutakoa egoki bete dadin.
3. Gainera, administrazio publikoek herritarrei zein sektore ekonomiko eta sozialei ingurumen arloko prestakuntza eta aholkua emateko betebeharra izanen dute.
4. Ingurumen-arloko legeria urratzen duten pertsonak zehatu egingen dira, eta eragin duten kaltea konpontzeko betebeharra izanen dute, legez zehazten den moduan.

II. TITULUA

Administrazio antolaketa

6. artikulua. Nafarroako Ingurumenaren Institutua sortzea.

1. Administrazioak ingurumena babestearen arloan eduki beharreko arintasuna eta eraginkortasuna hobetzeko, Nafarroako Gobernuak “Nafarroako Ingurumenaren Institutua” erakunde autonomoa sortuko du. Hari atxikiko zaio Nafarroako Gobernuaren ingurumen arloko departamentu eskuduna.
2. Gaur egun Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari atxikita dauden baliabide material eta giza baliabide guztiak “Nafarroako Ingurumenaren Institutuan” sartuko dira, eta azken horrek hartuko dut bere gain aipatutako zuzendaritza nagusiaren berezko eskumen guztiak.
3. “Nafarroako Ingurumenaren Institutuak” iraupen mugagabea izanen du, eta bere jardueratan hasiko da hura sortzeko arauak indarra hartzen duen bezain laster.

7. artikulua. Toki-entitateekiko lankidetzak.

1. Toki entitateek eskatzen dioten laguntza eta aholku teknikoa emanen ditu Nafarroako Ingurumenaren Institutuak, beren prebentzioko, esku-hartzeko, kontroleko, zaintzako eta zehatzeko eskumenez balia daitezen, foru lege honetan araututako jarduketetan.

III. TITULUA

Informazioa eta parte-hartze publikoa

8. artikulua. Informaziorako eskubidea.

Ezein pertsona juridikok edo fisikok honako hauetarako eskubidea izanen du:

- a) Jakitea zein den bere eskura egon behar duen ingurumen arloko informazio eta dokumentazioa.
- b) Agintari publikoen esku dagoen ingurumen arloko informazioa eta dokumentazioa eskuratzea eta jasotzea, araudi indardunean jasotako baldintzetan.
- c) Gai horretan dauzkan eskubide eta betebeharrei buruz informatuta egotea, araudi indardunean aplikatuz.
- d) Kasua bada, eskatzekoak diren tasa eta prezioen araubidea edo zenbatekoa ezagutzea.

9. artikulua. Informaziorako sarbidea.

1. Administrazio publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte aurreko artikuluan jasotako ingurumen-izaerako informazioa eta dokumentazioa desgaitasuna duten pertsonen eskura egon dadin, irisgarritasun unibertsalari buruzko printzipioari jarraituz.

2. Administrazio publikoek ez dute inongo traba edo zailtasunik ezarriko aurreko apartatuan aipatutako informaziorako edo dokumentaziorako irispidea izateko, araudi indardunean ezarritako mugez harantzago. Bereziki, ez dituzte honako hauek eginen:

a) Eskatzea informazio-eskera egin dadila bitarteko edo formatu jakin baten bitartez, legeria indardunak halakorik eskatzen ez duenean.

b) Informazioa ematea eskatutakoaz beste formatu batean edo eskatutakoaz beste bitarteko batez, horretarako arrazoi teknikorik ez badago edo eskatutako informazioaren bolumenak eskatutako formatu edo bitartekoa ezinezko egiten ez badu.

c) Informazio hori ematen atzeratzea inongo arrazoirik gabe.

d) Behartzea informazioaren kontsulta nahitaez egoitza administratiboetan egitera.

e) Eskatutako informazio edo dokumentazioa emateari ezezkua ematea, hori justifikatzen duen arrazoi balioudunik eduki gabe.

3. Eskatutako informazioa edo dokumentazioa ematen atzeratuz gero, eten eginen da kasuko alegazio edo errekurtsuak aurkezteko epea, harik eta eskatutako dokumentazioa eskuratzen den arte.

10. artikulua. Ingurumen-informazioko kontsultak.

1. Zaintza-, ikuskatze- eta kontrol-eginkizunetan kasuan-kasuan eskuduna den administrazioak idatziz eta modu loteslean erantzun beharko die entitate edo eragile ekonomiko eta sozialek ingurumen-araudia dela-eta egokitzat jotzen duen interpretazioari buruz –hain zuzen, haietan aplikatzekoa denari buruz–, kontsulta jasotzen duenetik gehienez ere hilabeteko epean.

2. Halaber, administrazioek argitu egin beharko dituzte pertsona fisiko zein juridikoek ingurumenaren defentsa dela-eta planteatzen dituzte kontsultak, nahiz eta kontsulta egiten duenak ez jardun ingurumen-eraginik duen inongo jarduera ekonomiko, profesional edo/eta sozialetan; betiere, kontsulta horiek zuzeneko lotura eduki beharko dute kontsultatutako administrazioaren ingurumen-arloko eskumenekin.

3. Bai jasotako kontsultak bai haiek direla-eta Administrazioak emandako erantzunak argitaraturik eduki beharko dira herritarrek erraz eskuratzeko moduan, Nafarroako Ingurumen Informazioaren Sarean, soil-soilik informazio horri buruzkoa den atal batean; informazioak arloz arlo xehakaturik egon beharko du eta etengabe gaurkoturik, eta ez du izanen kontsulta egin duen pertsonaren edo entitatearen identitateari buruzko daturik. Ondore horietarako, toki entitateek Nafarroako Ingurumenaren Institutuari igorriko dizkiote bai jasotako kontsultak bai emandako erantzunak ere.

4. Administrazio bakoitzak emandako erantzunei buruzko edozein irizpide-aldaketa ere argitaratu eginen da.

5. Administrazioek ez diote zehapenik ezarriko fede onez eta indarreko araudiaren interpretazioari dagokionez une bakoitzean argitaratutako irizpideak betez jarduten duenari, argitaratuta dauden irizpide horiek aldatzeari buruzko eta jarduketak irizpide berriaren arabera egiteko betebeharrari buruzko ohartarazpenik egin ez bazaio; izan ere, halakoak komunikatuko zaizkio eta argitaratuko dira ohartarazpen horren aldi berean.

11. artikulua. Nafarroako Ingurumen Informazioaren Sarea.

1. Nafarroako Ingurumen Informazioaren Sarea sortzen da. Helburu izanen du Nafarroan ingurumenari buruzko informazio guztia integratzea, alfanumerikoa, grafikoa edo beste edozein motatakoa izan, Foru Komunitatean ingurumen-informazioa ekoizten duten era guztietako zentroek sortua, informazio hori kudeaketan, ikerketan, zabalkunde publikoan, parte-hartze publikoko prozesuetan eta erabakiak hartzerakoan erabili ahal izateko.

2. Nafarroako Ingurumen Informazioaren Sarearen barruan atal bat sortuko da herritarrengan eragina izan dezaketen garrantzi bereziko ingurumen-gorabeherei buruzko informazioa biltzeko: “Ingurumen alertak” deitura izanen du.

3. Nafarroako Ingurumenaren Institutuari dagokio Nafarroako Ingurumen Informazioaren Sarea kudeatu eta ebaluatzea.

4. Nafarroako Ingurumenaren Institutuak lankidetzaz hitzarmenak egin ahalko ditu, besteak beste, erakundeekin, administrazio publikoekin unibertsitateekin, ikerketa-zentroekin, enpresekin eta gizarte-antolakundeekin, Nafarroako Ingurumen Informazioaren Sarea zabaltzeko eta hobetzeko, eta, hartara, ingurumenari buruzko jakintza eta berritasun guztiak gehiago ezagutaraz daitezzen lortzeko.

5. Eskura dagoen ingurumen-informazioaren fluxua bermatzeko. Nafarroako Ingurumenaren Institutuak lankidetzako politikak sustatuko ditu beste administrazio publiko batzuekin, dauden informazio-sistemak integratu eta, kasua bada, koordinatzeko.

6. Ez da egonen Nafarroako Ingurumen Informazioaren Sarearen bitartez lortutako informazioaren egiazkotasuna ziurtatzeko beharrik, informazio hori proiektuen izapidetzean edo beste edozein motatako prozedura administratiboetan ematen denean.

12. artikulua. Eskatutako informazioaren diagnostikoa eta diagnostiko horretatik eratorritako ekintzak.

1. Urtero, administrazio publikoek ebaluazio edo diagnostiko bat egingen dute eskatu zaien informazioari edo/eta dokumentazioari buruz, bai eta Nafarroako Ingurumen Informazioaren Saretik kontsultatu denari buruz ere, eta xehakatu du zein informazio-mota kontsultatzen eta eskatzen den gehien, eta zein informazio-mota dela-eta ez den inongo kontsultarik edo eskaerarik egin edo zein informazio-motak eragin duen askoz kontsulta gutxiago.

2. Administrazio publikoek eskatu ez den edo gutxi eskatu den informazioa egoteari buruzko sensibiltzate- edo/eta publizitate-jarduketak egingen dituzte, informazio hori ezagut dadin eta informazio hori eskuratzeko eskubideaz balia dadin.

13. artikulua. Parte-hartze publikoa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek bermatuko dute, informazio publikoaren bitartez edo interesdunei entzunaldia emanez, herritarrek egiazki eta eraginkortasunez parte hartzen dutela ingurumeneari esku hartzeari buruzko prozedura administratiboetan.

2. Ingurumenaren arloko plan, programa eta proiektuak zein izaera orokorreko xedapenak lantzen, aldatzen eta berrikusten herritarrek parte-hartze goiztiar, erreal eta eraginkorra izan dezaten sustatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak honako hauek zainduko ditu:

a) Herritarrek Nafarroako Ingurumen Informazioaren Sarerako sarbidea dutela.

b) Ingurumenaren arloko parte-hartze publikoa arautzen duten nazioarteko hitzarmenak eta legeria betetzen direla.

c) Herritarrei informazioa eman zaiela, bitarteko egokien bitartez, ingurumenaren arloko plan, programa eta proiektuen eta gaiari buruzko izaera orokorreko xedapenen proposamenak egiteko edozein ekimeni buruz –edo, bestela, haiek aldatu edo berrikusteari buruz–, eta ekimen horiei buruz egokia den informazioa herritar horien irispidean jartzen dela.

d) Herritarrek ohartarazpenak eta alegazioak egin ahal dituztela kasuko planari, programari edo izaera orokorreko xedapenari buruz erabakia hartu baino lehen; herritarrek hori egiteko moduz informatuta daudela, eta Administrazio Publikoak horiek behar bezala kontuan hartzen dituela.

e) Herritarrei informazioa ematen zaiela hartutako erabakiei buruz eta haiek oinarritzeko arrazoiei eta gogoetei buruz.

3. Arau honetan aurreikusitako informazio publikoko edozein izapide herritarren esku jarriko da espedientearen izapidetzean beharrezkoa den dokumentazio guztia eduki bezain laster, horren barne direla jakintza-atalei buruz bidezkoak diren txostenak, kasua bada.

14. artikulua. Ingurumen-arloko elkartegintza.

1. Botere publikoek sustatuko dituzte ingurumenaren babesa sustatzen duten elkarte edo beste edozein motatako erakundeen sorrera eta funtzionamendua, eta elkarriketa bultzatuko dute arlo honetan ukitutako sektore ekonomiko eta profesionaleko zein ikerketa-sektoreetako eta beste edozein sektoretako erakundeekin, Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren bitartez.

2. Botere publikoek bultzatuko dute ingurumenaren defentsarako irabazi asmorik gabeko elkarte eta erakundeen sustapena.

3. Sustapen- edo babes-neurri horiek, besteak beste, zabalkunde-jardueratarako izan ahalko dira; bestela, neurri ekonomiko edo teknikoak, edo prestakuntza- eta antolamendu-arlokoak izan ahalko dira.

IV. TITULUA

Ingurumena aldezteko jarduerak sustatzea

I. KAPITULUA

Ingurumena babesteko planak eta programak

15. artikulua. Ingurumen planak

1. Ingurumen planak dira Nafarroako Foru Komunitatean ingurumenaren arloko politika garatu eta betearazteko tresnak.

2. Plan horiek bideratuta daude ingurumena kudeatu, babestu, kontserbatu eta leheneratzera Nafarroako lurraldean, eta haien aplikazioak tratamendu bateratua har dezaketen eremuak hartuko ditu.

3. Plan horiek, besteak beste, honako xede hauek izanen dituzte:

a) Industria-instalazioetatik eta enpresa-jardueretatik zein jarduera ekonomikoetatik datorren kutsadura atmosferiko eta akustikoa, argi-kutsadura edo dardara-kutsadura saihestea edo gutxitzea.

b) Azaleko eta lurpeko uretan isurtzen den zama kutsagarria saihestea edo gutxitzea.

c) Hondakinen gutxitzea, berreskuratzea edo tratamendu zuzena erraztea, ingurumenaren ikuspuntutik.

d) Industria-instalazioetatik datorren lurzoruen kutsadura saihestea edo gutxitzea.

4. Planek, gutxienez ere, honako eduki hauek jasoko dituzte:

a) Aplikazio-eremua.

b) Berariazko helburuak.

c) Betearazteko eskumenak.

d) Plana garatzeko behar diren programak, kasua bada.

e) Sektore publiko eta pribatuak egitekoak.

f) Análisi ekonomiko eta finantzarioa.

g) Finantzaketa-bideak.

h) Betearazteko epea, jarraipen-sistemak eta, kasua bada, berrikusteko prozedura.

5. Tresna hauek, nolahi ere, Estatuko Administrazioak bere eskumenak egikaritzuz onetsi dituen planak errespetatuko dituzte, eta haiekin koordinatu beharko da.

6. Foru Komunitateko Administrazioak jarduteko mekanismoak ezarriko ditu planak garatzeari begira, toki entitateekin lankidetzan, nor bere eskumenen eremuan.

16. artikulua. Ingurumena babesteko programak.

1. Foru Komunitateko Administrazioak berariazko programak egin eta onetsi ahalko ditu planen xede berarekin baina jarduteko eremu zehatzago batekin.

2. Programa horiek 19. artikuluan araututako planekin koordinatu beharko dira, haien koherentzia segurtatze aldera.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak toki entitateekiko lankidetzak-mekanismoak ezarriko ditu programak garatzeko, nor bere eskumenen esparruan.

17. artikulua. Informazio publikoa eta entzunaldia ingurumena babesteko plan eta programen proiektuak direla eta.

1. Aurreko artikuluetan aipatutako plan eta programak egin baino lehen, kontsulta publiko bat egingen da, zeinean iritzia eskatuko baitzaie plan eta programa horien xedea eta helburuak direla-eta, helburu horiek lortzeko ezarri nahi diren neurriak direla-eta, eta horietarako balizko alternatibak direla-eta ukituta gerta daitezkeen subjektuei eta ordezkariak handieneko erakundeei.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitako alde aurretiko kontsultaz gainera, aginduzkoak diren edo beharrezkotzat jo diren arloz arlo txostenak eman ondoren, plan eta programa horien proiektuak jendaurrean jarriko dira gutxienez ere hilabete batez.

3. Aurreko apartatuan aipatutako aldian plan eta programen proiektuei alegazioak eraginkortasunez – bertaratzu zein bide telematikoz– aurkezteko eskubidea bermatzeko, kontsultako, entzunaldiko eta informazio publikoko izapideetan interesdunen eskura jarriko dira beharrezko gerta daitezkeen dokumentu guztiak; dokumentu horiek informazio zehatz guztia bildu beharko dute, eta modu argi eta zehatzean idatzi beharko dira.

4. Foru Komunitateko Administrazioak behar bezala erantzun beharko die alegazio guztiei.

5. Aurreko izapideak amaituta eta espedienteko dokumentazio osoa ikusita, Ingurumenaren arloko Aholku Kontseiluak aginduzko txosten bat emanen du ingurumenari buruzko plan eta programa bakoitzerako.

II. KAPITULUA

Ikerketa, hezkuntza, prestakuntza eta zabalkundea

18. artikulua. Ikerketa.

1. Foru Komunitateko administrazio publikoek ingurumenaren babesarekin lotutako gaien arloko ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza sustatuko dituzte.

2. Ikerketak, garapenak eta berrikuntzak honako helburu nagusi hauek izanen dituzte:

a) Berrikuntza teknologikoa sar daitezen erraztea, horien bidez baliabideen erabilera arrazionalagoa eta ingurumenarekin inpaktu txikiagoa sortzea ahalbidetzeko.

b) Ingurumenaren arloko prebentzio eta kontroleko prozedurak hobetzea.

c) Energia berriztagarrien efizientzia areagotzea eta kutsadura-mota desberdinak gutxitzea.

d) Ingurumenaren arloko hezkuntzara eta kontzientziatziora bideratutako jarduerak indartzea.

19. artikulua. Hezkuntza.

1. Nafarroako Ingurumenaren Institutuak eta Nafarroako Gobernuaren hezkuntzaren arloko departamentu eskudunak hezkuntzaren, ikerketaren eta ingurumenari buruzko sentsibilizazioaren arloan baterako jarduketaren plan bat jarriko dute abian.

2. Planak honako xede nagusi hauek izanen ditu:

a) Ingurumenari buruzko kontzientzia orokortzea.

b) Ingurumenari buruzko hezkuntza zuzena unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetan, gai honekin lotutako edukiak hezkuntza-programazioan sartuz.

c) Unibertsitatearen eta lanbide heziketaren eremuetan, ingurumenaren ezagutzaren arloei buruzko gaikuntza berezitua eskaintzea.

20. artikulua. Ingurumenaren arloko prestakuntza eta zabalkundea.

1. Administrazio publikoek ingurumenaren arloko prestakuntza sustatuko dute gizartearen sektore guztietan, herritarren artean eta erakundeetan ingurumen-arazoaren prebentziora eta ebazte efektibora bideratutako ezagutzak, informazioa, jarrerak, balioak, jokabideak eta trebetasun praktikoa zabaltzeko eta hedatuko dituzten jarduketaren bitartez.

2. Ingurumen-kudeaketarako programek, nolatan ere, prestakuntzako eta zabalkundeko osagai bat edukiko dute, eta erraztuko dute herritarrek haiek ezagut ditzaten eta gizartearen arloek haietan parte har dezaten.

III. KAPITULUA

Ingurumena kontserbatzeko foru funtsa

21. artikulua. Ingurumena kontserbatzeko foru funtsa.

1. Ingurumena kontserbatzeko foru funtsa sortzen da. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ingurumena babesteko edukiko duen funts ekonomikoa izanen da, eta honako baliabide hauek izanen ditu:

a) Urtero Nafarroako Gobernuaren Aurrekontu Orokorretan ezartzen diren baliabide ekonomikoak.

b) Ingurumena aldeztearen arloa dela-eta egindako arau-hausteengatik Foru Komunitateko Administrazioak kobratzen dituen zehapen administratiboen zenbatekoa.

c) Ingurumenerako kalteak direla-eta Foru Komunitateko Administrazioak jasotzen dituen kalte-ordainen zenbatekoa.

d) Ingurumena leheneratzeko, ingurumen-kaltearen erantzuleek Foru Komunitateko Administrazioari ordaindu dizkioten diru-zenbatekoak.

2. Ingurumena kontserbatzeko foru funtsa Nafarroako Ingurumenaren Institutuari atxikiko zaio, eta ingurumenaren arloko prebentzio-, babes- eta leheneratze-jarduketak finantzatzera bideratuko da. Azken kasu horretan, erabili beharreko funtsak izanen dira, gutxienez ere, ingurumen-kaltearen erantzuleek ordaindutakoak, eta berariaz bideratuko dira, erantzuleek ordaindutako zenbatekoa bezalaxe, haiek eragindako kaltea leheneratzera.

3. Gainera, funtsa erabiliko da, bere aukeren neurrian, ondoren aipatzen diren kalte-ordainak ematera, baldin eta Foru Administrazioaren erantzukizun zibil subsidiarioa deklaratu bada kasuko prozedura administratibo edo/eta judizialaren ondoren:

a) Hirugarrentzako kalte-ordainak, ingurumenari eragindako kalteengatikoak, erantzulea identifikatzerik izan ez denean; horrek ez du eragotziko gero pertsona horri gastua errepikatzea, baldin eta geroztik identifikatzen bada.

b) Hirugarrentzako kalte-ordainak, ingurumenean eragindako kalteen ondoriozkoak, horien erantzulea kaudimengabea dela deklaritzen denean; hori ez da eragozpena izanen, bidezkoa bada, erantzuleari gastua errepikatzeko.

4. Foru Komunitateko toki entitateek ingurumena kontserbatzeko foru funtsak eratu ahalko dituzte, ingurumena kontserbatzeko foru funtsa dela-eta adierazitako helburu eta baliabide berdinekin.

V. TITULUA

Ingurumenaren arloko esku-hartze administratiborako tresnak

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

22. artikulua. Esku-hartze administratiboaren araubidea.

1. Ingurumen-ebaluazioari eta -prebentzioari buruzko eta kutsaduraren kontrol integratuaren arloko oinarrizko legerian eta foru lege honetan ezarritakoaren arabera ingurumenean eragin aipagarriak izan ditzaketen plan, programa, proiektu eta jarduerak ingurumenaren arloko esku-hartze administratiboa eskatzen dute.

2. Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan, ingurumenaren arloko esku-hartze administratiborako ondoren aipatzen diren tresnak ezartzen dira, ingurumenean eragina duten plan, programa, instalazio, proiektu eta jardueretarako. Teknika horiek eskatu eginen dira haiek onesteko, instalatzeko, ustiatzeko, betearazteko edo abian jartzeko.

- a) Ingurumen-ebaluazio estrategikoa
- b) Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa
- c) Ingurumen-baimen integratua
- d) Jarduera sailkatuaren lizentzia
- e) Erantzukizunpeko adierazpena

3. Foru lege honek indarra hartu eta 6 hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat igorriko dio Nafarroako Parlamentuari; hartan zehaztuko da zein kasutan behar duen jarduera batek, jarduera-aldaketa batek edo instalazio batek aurreko apartatuan jasotako ingurumenaren arloko esku-hartzerako tekniketako edo tresnetako bakoitza.

23. artikulua. Eskumenak eta ingurumen-organoa

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Orokorrari dagozkio ingurumen-ebaluazio estrategikoa, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa eta ingurumen-baimen integratua.

2. Toki entitateei dagozkie jarduera sailkatuaren lizentziarekin lotutako eskumenak, bai eta erantzukizunpeko deklarazioak jaso eta, kasua bada, kontrolatzekoak ere.

3. Bi udalerritan kokatuta dauden edo eragina duten jardueren eta instalazioen kasuan, izapidetzeko edo ebazteko eskumena egokituko zaio horietatik kasuko jarduerak edo instalazioak ingurumen-eragin handiena duen entitateari, eta horietan guztietan ingurumen-eragin berdina baldin badute, jarduera edo instalazioak azalera gehien hartzen duen udalerritari. Baldin eta desadostasunik badago ukitutako toki entitateen artean, Foru Komunitateko ingurumen organoak ebatziko du, Nafarroako Ingurumenaren Institutuak aginduzko txostena emanda, nori dagokion aipatutako eskumena egikaritzea.

4. Nafarroako Gobernuak hitzarmenak egingen ditu behar adina baliabide material eta giza baliabide ez duten toki entitateekin, beren eskumena egikaritu ahal dezaten, betiere hala eskatzen badute.

24. artikulua. Toki entitateen txostenak.

1. Toki entitatearen eskumenekoa ez den ingurumen-babeserako esku-hartze administratiboko prozedura orotan, instalazioa kokatuko den edo ingurumen-afekzioak paira ditzaketen toki entitateen aldeko txostena eskatuko da.

2. Toki entitateak bere eskumenen eremuan instalazioaren geroko kontrola egin ahal izateko beharrezkotzat jotzen dituen ingurumen-alderdiei buruzko txostena emanen du, eta, bereziki, honako hauei dagokienez: zarata, udal sarrerako isuriak, hornidura-sareko konexioak, hondakinak, suteen prebentzio eta itzaltzea eta jardueraren edo instalazioaren hirigintza-egokitzapena.

25. artikulua. Baimenak eta lizentziak.

1. Ingurumen-kontrolen bat eduki beharreko plan, programa, proiektu, instalazio edo jarduerak betearazteko behar diren baimen eta lizentziak emateko honako hauek bete beharko dira: kasuko ingurumen-baimen integratua, kasuko ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa edo jarduera sailkatuaren lizentzia.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoa bete gabe egin diren obra, instalazio eta jarduerak ordenamendu juridikoaren aurkakoak izanen dira, eta ingurumenaren arloko administrazio eskudunak agintaritza substantiboari haiek eteteko eskatu ahalko dio, dagokien ingurumen-kontrola egiten ez den bitartean.

3. Inongo kasutan ere ez dira ez lizentzia edo baimenak, ez eta haien luzapenak ere, administrazio-isiltasunez emandakotzat hartuko.

4. Ingurumenaren arloko esku-hartzearen menpeko instalazio, obra edo jardueren titulartasun aldaketak, bai eta titulartasun hori uztea ere, hilabeteko epean komunikatuko zaizkio kontrol hori egin duen Administrazioari.

5. Instalazio edo jarduera baten aldaketa baten ondorioz, instalazio edo jarduera horren osotasuna esku-hartze administratiborako beste araubide baten menpean geratzen denean, instalazio edo jarduera oso-oso –bai hasierako zatia, bai aldatutakoa– jarri beharko da araubide horren menpean.

26. artikulua. Ingurumen-erregistroa.

Nafarroako Ingurumenaren Institutuaren ardurapeko ingurumen-erregistroak Foru Komunitateko Administrazioak eta toki entitateek lege hau aplikatuz aurrera eraman dituzten esku-hartze eta egiaztatze jarduketak guztiak bilduko ditu. Ondore horietarako, toki entitateek, erregelamenduz xedatutako moduan, beren eskumenak egikaritzeko egin dituzten ingurumen-kontrolako ekintzak komunikatuko dituzte.

27. artikulua. Gizartearen parte-hartzea, emandako esku-hartze administratiboko tresnak betetzeko.

1. Ingurumen-interesen aldeko erakundeek eta bizilagunek –haitan sarturik egon zein ez egon–, bai eta planaren, programaren, proiektuaren, jardueraren edo instalazioaren betetze egokian interesa izan dezaketen gainerako entitateek ere, eskatu ahalko dute ingurumen-arloan eskudunak diren administrazioek agintaritza substantiboak premia ditzatela ingurumen-baimen integratuetan, baimenetan eta udal lizentzietan ageri diren termino eta baldintzak betetzeko.

2. Halaber, arrazioak emanda, eskatu ahalko dute aurreko apartatuak aipatzen dituen baimen eta lizentziak aldatzeko edo errebokatzeko, tresna horietan sartutako ingurumen-babeseko neurriak nabarmen eskasak direla agertzeraz ematen duten inguruabarrak daudenean. Kasu horietan, ingurumen-organok iritzia eman beharko du prozedurari hasiera emateko erabakia hartzearen egokitasunari buruz, eskaera jaso eta hilabeteko epean.

28. artikulua. Alternatiben azterlana.

Baimen-prozedura guztiak ikuspuntu teknikitik eta ingurumenaren ikuspuntutik arraziozkoak eta bideragarriak diren alternatiben azterlan bat jaso beharko dute, zero alternatiba barne dela, bai eta jasotako alternatiben hautuari buruzko erantzun arrazioitu bat ere.

29. artikulua. Proiektu edo jardueren zatikatzea.

Proiektu edo jarduera bat zenbait proiektu edo jardueratan zatitzeak ez du eragotziko haiek foru lege honetan araututako ingurumen-arloko esku-hartze administratiboko araubideen menpean jartzea, nahiz eta araubideen menpean jartze hori eskatzekoa izan zenbait atalasetatik gora –atalase horien ondoretarako metatu eginen dira proiektu edo jardueraren zatiki bakoitzaren magnitude edo dimentsioak–.

30. artikulua. Mugez gaindiko eraginak eta autonomia-erkidegoen artekoak.

1. Foru lege honetan araututako ingurumen-arloko esku-hartze administratiboko prozedurak ebazteko organo eskudunek uste baldin badute prozedura horien menpekoa den plan, programa, proiektu, jarduera edo instalazio batek ingurumen-eragin aipagarriak izan ditzakeela Europar Batasuneko kidea den beste estatu batean, prozedura horiei hasiera emateko eskaeraren kopia bat igorri beharko dio estatu horri, bai eta eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren kopia ere, egokitzat jotzen dituen alegazio edo gogoetak aurkez ditzan; eta gero halakoei buruzko behin betiko ebazpenaren edo txostenaren kopia bidaliko zaio, Kanpo Arazoetarako Ministerioaren bitartez. Nolanahi ere, Europako araudian xedatutakoari begiratuko zaio, bai eta Estatuko arauetan erregulatutakoari ere.

2. Aurreko apartatuan aipatutako organo eskudunek uste dutenean foru lege honetan araututako esku-hartze administratiboko prozeduren menpekoa den plan, programa, proiektu, jarduera edo instalazio batek ingurumen-eragin aipagarriak izan ditzakeela beste autonomia-erkidego batean edo batzuetan, edo beste autonomia-erkidego batek hala eskatzen duenean, prozedura horiei hasiera emateko eskaeraren kopia bat igorri beharko diete autonomia-erkidego horiei, bai eta eskatzaileak eskatutako dokumentazioarena ere, egokitzat jotzen dituzten alegazio edo gogoetak aurkez ditzaten. Halaber, ukitutako autonomia-erkidegoari azkenean onesten den ebazpena edo behin-betiko txostena igorriko zaio.

3. Ingurumen-arloko departamentu eskudunak badakienean beste autonomia-erkidego batean garatzen ari dela foru lurraldean ingurumen-eraginak izan dezakeen plan, programa, proiektu edo instalazio bat, behar den informazioa eskatuko du haren jarraipen egokia egiteko, eta bidezko diren neurriak hartuko ditu afekzioa ahal den txikiena izanen dela bermatzeko.

31. artikulua. Ingurumenari buruzko azterlan eta dokumentuen egilearen gaitasun teknikoa.

1. Ingurumen-arloan esku hartzeko prozedura bat hasten dutenek aurkeztu beharreko ingurumenari buruzko azterlan eta dokumentuak, gaitasun tekniko nahikoa duten pertsonak egin beharko dituzte, lanbide-kualifikazioei eta goi mailako heziketari buruzko arauen arabera.

2. Dokumentu horiek behar besteko kalitatea eduki beharko dute foru lege honen eta hura garatzen duen araudiaren eskakizunak betetzeko eta egilea edo egileak identifikatzeko, eta haren edo haien titulazioa eta, kasua bada, araututako lanbidea aipatuko dute.

3. Halaber, dokumentua noiz egin den eta noiz amaitu den aipatu beharko da, eta egilearen edo egileen sinadura agertu beharko da.

32. artikulua. Ingurumenari buruzko azterlan eta dokumentuen egilearen erantzukizuna.

1. Aurreko artikuluan aipatutako dokumentuen egilea edo egileak, haien sustatzaileekin batera, dokumentuetan jasotako datuen edukiaren eta egiazkotasunaren erantzule solidarioak dira.

2. Aurreko apartatuan aipatutako erantzukizuna salbuetsiko da datuak hartu direnean argitaratutako edo administrazio publikoetatik jasotako informazioetik; betiere, hori modu frogagarrian ziurtatu beharko da. Halakoetan, erantzukizuna datua argitaratu edo bidali zuen Administrazioari egokituko zaio.

33. artikulua. Komunikazio-betebeharrak.

1. Aplikatzekoa zaion legeria sektorialean aurreikusitako auto-kontrol eta komunikazioko eta informazioa emateko betebeharez gain, ingurumen-arloko esku-hartzearen menpe jarritako instalazioaren edo jardueraren titularrak administrazio eskudunari honako gertakariak berehala jakinarazi beharko dizkio:

a) Auto-kontrolerako sistemen edo instalazioen funtzionamendu anormala, baita pertsonen osasunari, beren ondasunei zein ingurumenari kalterik eragin liezaiokeen beste edozein gorabehera ere.

b) Pertsonen osasunerako zein ingurumenerako benetako arriskuak zein balizko arriskuak izan ditzakeen istripu bat egotea; horren gainean hartutako neurriak espresuki zehaztuko dira, eta administrazio eskudunari dagoen informazio gutzia emanen zaio, berak egoki irizten dien erabakiak hartzeko.

c) Jarduera hiru hilabetetik gora borondatez etetea, kanpainako industrietarako izan ezik, baita jarduera behin betiko etetea ere.

d) Baimendutako jardueraren edo instalazioaren titulartasuna eskualdatzea.

e) Ingurumen-baimenean bertan edo jarduera sailkaturako lizentzian zehazten den beste edozein inguruabar.

f) Zehazki, ingurumen-arloko esku-hartzea behar duten instalazioen titularrek urtean behin ingurumen-organoari atmosferarako emisioen, hondar uren isurien eta hondakinen ekoizpen eta kudeaketan datuak emanen dizkiote.

2. Ingurumen-baimen integratuaren menpe dauden instalazioetako titularrek gutxienez ere urtean behin jakinaraziko dizkiote ingurumen-organoari instalazioaren emisioei buruzko datuak; honako hauek zehaztuko dituzte: neurketetan erabilitako metodologia, haien maiztasuna eta, nolahi ere, hura benetakoa dela egiaztatzeko behar adina informazio.

II. KAPITULUA **Ingurumen-ebaluazioa**

1. atala **Ingurumen-ebaluazio estrategikoa**

34. artikulua. Araubide juridikoa eta prozedura

1. Eskumena Foru Komunitate honi dagokionean, Ingurumen-ebaluazio estrategikoa izapidetzeko araubide juridikoa eta prozedura Estatuko oinarrizko araudian xedatutakoak izanen dira. Hala eta guztiz ere, kapitulu honetan jasotako salbuespenak beteko dira.

2. Planen eta programen kasuan, bai eta haien aldaketan kasuan ere, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin beharko da ingurumen-ebaluazioaren arlorako Estatuak emandako arauetan ezarritako kasuetan eta moduan.

3. Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua beharko da Estatuko ingurumen-ebaluazioari buruzko oinarrizko araudiak eta gero gai horri buruzko garapen autonomikoak –zeina oinarrizko arauan finkatutako mugen barruan emana izanen baita– eskatutako plan eta programen kasuan.

4. Estatuko araudian ingurumen-organoari buruz agertzen diren aipamenak ulertu behar da Nafarroako Ingurumenaren Institutuari buruz eginak direla, Nafarroako Foru Komunitatearen kasuan.

5. Ezin izanen da obra-lizentziarik eman ingurumen-ebaluazioaren menpekoak diren jardueretarako ingurumen-ebaluaziorako kasuko tresna ematen ez den bitartean.

35. artikulua. Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren indarraldia.

1. Ingurumen-adierazpen estrategiko orok bere indarra galduko du eta berezko dituen ondoreak sortzeari utziko dio, baldin eta dagokion egunkari ofizialean argitaratu ondoren ez bada plan edo programa bat egin edo onetsi gehienez ere bi urteko epean.

2. Halaber, behin plana edo programa onetsita, ingurumen-adierazpen estrategikoak bere indarra galdu eta ondoreak sortzeari utziko dio, baldin eta plana edo programa onetsi denetik bi urteko epean ez badira betearazteko ekintzak behin betiko onetsi.

3. Indarra galduz gero, sustatzaileak berriz ere hasi beharko du planaren edo programaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren izapidea, salbu eta ingurumen-adierazpen estrategiko indardunaren indarraldiaren luzapena adosten denean, hurrengo artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

36. artikulua. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren indarraldia luzatzea.

1. Sustatzaileak ingurumen-adierazpen estrategikoaren indarraldiaren luzapena eskatu ahalko du aurreko artikuluan aurreikusitako epea iragan baino lau hilabete lehenago. Sustatzaileak egindako eskaerak epe hori etenen du.

2. Ingurumen-organoak luzapen-eskaera hiru hilabeteko epean ebatziko du, eskera hori aurkezten denetik kontaktzen hasita; hori baino lehen, txostena eskatuko die gaiak ukitutako administrazio publikoei ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko oinarritzat hartu ziren funtsezko elementuei buruz. Administrazio horiek bi hilabeteko epean iritzia eman beharko dute. Epe hori, behar bezala justifikatutako arrazoiak tarteko, beste hilabete batez luzatu ahalko da.

3. Aipatutako eskaera, eskura dauden txostenak eta gertatzen diren inguruabarrak ikusita, ingurumen-organoak erabaki ahalko du ingurumen-adierazpen estrategikoaren indarraldia luzatzea, baldin eta ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko oinarritzat hartu ziren funtsezko elementuetan aldaketarik izan ez bada; horrela, adierazpenaren indarraldia beste urte batez luzatuko da.

4. Eskaera jaso denetik lau hilabete iragan badira ingurumen-organoak ingurumen-adierazpen estrategikoaren indarraldiaren luzapena jakinarazi gabe, ulertuko da ezetsi egin dela luzapenaren eskaera.

5. Luzapen gisa emandako epea iragan bada aurreko artikulua bigarren apartatuaren arabera jokatu gabe, sustatzaileak ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozedura hasi beharko du berriz ere, eta ezin izanen du beste luzapen bat eskatu.

37. artikulua. Ingurumen-txosten estrategikoaren indarraldia.

1. Ingurumen-txosten estrategiko orok bere indarra galduko du eta berezko dituen ondoreak sortzeari utziko dio, baldin eta dagokion egunkari ofizialean argitaratu ondoren ez bada plan edo programa bat egin edo onetsi gehienez ere bi urteko epean.

2. Halaber, behin plana edo programa onetsita, ingurumen-txosten estrategikoak bere indarra galdu eta ondoreak sortzeari utziko dio, baldin eta plana edo programa onetsi denetik bi urteko epean ez badira betearazteko ekintzak behin betiko onetsi.

3. Indarra galduz gero, sustatzaileak berriz ere hasi beharko du planaren edo programaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren izapidea, eta ezin izanen du inongo luzapenik eskatu.

38. artikulua. Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren arteko lotura.

1. Plan edo programa baten ingurumen-ebaluazio estrategikoak ez du bazterten haietatik datozen proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitea.

2. Ingurumen-organoak arrazoiak emanda erabaki ahalko du, eraginkortasunaren eta sinplifikazioaren printzipioa aplikatuta, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren izapideak eta egintza administratiboak sartzea ingurumen-ebaluazioko beste prozedura batzuetan, baldin eta planean edo programan ezarritako epea iragan ez bada edo, bestela, bi urte iragan ez badira ingurumen-adierazpen estrategikoa argitaratu zenetik, eta ingurumen-ebaluazio estrategikoan kontuan hartu diren inguruabarrak aldatu ez badira.

2. atala

Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa

39. artikulua. Araubide juridikoa eta prozedura

1. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa izapidetzeko araubide juridikoa eta prozedura, eskumena foru erkidego honi dagokionean, Estatuko oinarritzko araudian xedatutakoak izanen dira. Hala eta guztiz ere, kapitulu honetan jasotako berezitasunak beteko dira.

2. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa, arrunta zein sinplifikatua, beharko dute ingurumen-ebaluazioari buruzko Estatuko oinarritzko araudian eta gaiari buruzko haren geroko garapen autonomikoetan aipatutako proiektuek.

3. Estatuko araudian ingurumen-organoari buruz agertzen diren aipamenak ulertu behar da Nafarroako Ingurumenaren Institutuari buruz eginak direla, Nafarroako Foru Komunitatearen kasuan.

4. Ezin izanen da obra-lizentziarik eman ingurumen-ebaluazioaren menpekoak diren jardueretarako ingurumen-ebaluaziorako kasuko tresna onesten ez den bitartean.

40. artikulua. Ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren indarraldia.

1. Proiektuaren edo jardueraren ingurumen-inpaktuaren adierazpenak bere indarra galduko du eta berezko dituen ondoreak sortzeari utziko dio, baldin eta dagokion egunkari ofizialean argitaratu ondoren ez bada proiektuaren edo jardueraren betearazpena amaitu lau urteko epean. Kasu horietan, sustatzaileak berriz ere hasi beharko du proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren izapidea, salbu eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren indarraldiaren luzapena adosten denean, hurrengo artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

2. Berriazko araurik ez badago, ulertuko da proiektuaren betearaztea amaitu dela obraren amaierari buruzko ziurtagiria eskuratzen denean.

3. Aurreko apartatuan ezarritako ondoretarako, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duen edozein proiektu edo jardueraren sustatzaileak, hilabeteko epean, ingurumen-organoari komunikatu beharko dio proiektu edo jarduera horren betearaztea zein egunetan amaituko den.

41. artikulua. Ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren luzapena.

1. Sustatzaileak ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren indarraldiaren luzapena eskatu ahalko du aurreko artikuluan aurreikusitako epea amaitu baino lau hilabete lehenago. Sustatzaileak egindako eskaerak epe hori etenen du.

2. Eskaera hori aurkeztu ondoren, ingurumen-organoak erabaki ahaliko du ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren indarraldia luzatzea, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko oinarritzat hartu ziren funtsezko elementuetan aldaketarik izan ez bada; horrela, adierazpenaren indarraldia bi urtez luzatuko da.

3. Ingurumen-organoak luzapen-eskaera lau hilabeteko epean ebatziko du, eskaera hori aurkezten denetik kontatzen hasita; hori baino lehen, gaiak ukitutako administrazio publikoei txostena eskatuko die ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko erabili ziren funtsezko elementuei buruz. Administrazio horiek bi hilabeteko epean eman beharko dute erantzuna.

4. Epea iragan bada ingurumen-organoak ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren indarraldiaren luzapena ebatzi gabe, ulertuko da ezetsi egin dela luzapenaren eskaera.

5. Emandako epea iragaten bada proiektuaren edo jardueraren betearazpena bukatu gabe, sustatzaileak berriz ere hasi beharko du proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren prozedura, eta ezin izanen da beste luzapenik eskatu.

42. artikulua. Ingurumen-inpaktuaren txostenaren indarraldia.

1. Ingurumen-inpaktuaren txostenak bere indarra galduko du eta berezko dituen ondoreak sortzeari utziko dio, baldin eta dagokion egunkari ofizialean argitaratu ondoren ez bada proiektuaren edo jardueraren betearazpena lau urteko epean amaitu.

2. Berariazko araurik ez badago, ulertuko da proiektuaren betearaztea amaitu dela obraren amaierari buruzko ziurtagiria eskuratzen denean.

3. Lehenengo apartatuan jasotako kasuetan, sustatzaileak berriz ere hasi beharko du proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren izapidea, eta ezin izanen du inongo luzapenik eskatu.

III. KAPITULUA **Ingurumen-baimen integratua**

43. artikulua. Araubide juridikoa eta prozedura

1. Ingurumen-baimen integratua Estatuko oinarritzko legerian ezarritakoari egokituko zaio, salbu eta kapitulu honetan adierazitakoaren aurkakoa denean.

2. Ingurumen-baimen integratua eduki beharko dute ingurumen-ebaluazioari buruzko Estatuko oinarritzko araudian eta gaiari buruzko haren geroko garapen autonomikoetan –oinarritzko arauak finkatutako mugen barruan emandakoetan– aipatutako instalazio, proiektu eta jarduerak.

3. Estatuko araudian ingurumen-organoari buruz agertzen diren aipamenak ulertu behar da Nafarroako Ingurumenaren Institutuari buruz eginak direla, Nafarroako Foru Komunitatearen kasuan.

4. Ezin izanen da obra-lizentziarik eman ingurumen-ebaluazioaren menpekoak diren jardueretarako ingurumen-ebaluaziorako kasuko tresna ematen ez den bitartean.

44. artikulua. Ingurumen-baimen integratua behar duten jarduerak hastea edo berritzea.

1. Ezin izanen da ingurumen-baimen integratua behar duen jarduerarik egin horretarako baimena ematen zaion arte.

2. Ezin izanen da ingurumen-baimen integraturik eman, lehenagotik ingurumen-ebaluazioari buruzko aldeko ebazpenik eman ez bada.

3. Ingurumen-baimen integratua eman beharko da gainerako baimen, lagapen edo jarduera zein instalazioa ezarri edo ustiatzeko behar den beste edozein gaikuntza eman baino lehen.

4. Inongo jarduera edo instalazio ezin izanen da funtzionatzen hasi ingurumen-zerbitzuek XI. tituluaren ezarritako neurri zuzentzaileen eraginkortasuna egiaztatu arte, erregelamendu bidez ezartzen den prozedurari jarraituz.

45. artikulua. Ingurumen-baimen integratuaren aldaketa.

1. Ingurumen-baimen integratua aldatzeko prozedura ofizioz nahiz sustatzaileak eskatuta hasi ahaliko da.

2. Ingurumen-baimen integratua ezarritako baldintzak ofizioz aldatu ahaliko dira, kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik gabe, honako kasu hauetan:

a) Instalazioak sortutako kutsadurak agerian uzten duenean emisioen muga-balioak edo baimenaren beste baldintza batzuk berrikustea komeni dela.

b) Eskueran dauden teknikarik onenetan aldaketa garrantzitsuak izatearen ondorioz, emisioak nabarmen murriztea dagoenean, gehiegizko kosterik ezarri gabe.

c) Prozeduraren edo jardueraren funtzionamenduaren segurtasunak beste teknika batzuk erabiltzera behartzen duenean.

d) Irizten zaionean baimenaren baldintzak berrikustera behartzen duten gorabeherak agertu direla gerora. Aldaketa jabari hidrauliko publikora egiten diren isuriaren baldintzen gainekoa denean, arroko erakundeari isuriaren baldintzen gaineko beste txosten lotesle bat eskatu beharko zaio.

e) Instalazioari aplikatzekoa zaion indarreko legeriak hala eskatzen duenean.

3. Erregelamenduz zehaztuko da ingurumen-baimen integratua aldatzeko prozedura, instalazioaren funtsezko aldaketaren ondorioz ala beste arrazoiren baten ondorioz.

46. artikulua. Ingurumen-baimen integratuaren indarraldia.

Ingurumen-baimen integratua zortzi urteko gehienezko epe baterako emanen da, eta epe hori iraganda berri eta, nolana ere, gaurkotu beharko da.

47. artikulua. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren eta ingurumen-baimen integratuaren arteko lotura.

Ezin izanen da ingurumen-baimen integraturik eman ez eta, kasua bada, industrietarako baimen substantiborik ere, aldez aurretik ingurumen-inpaktuaren adierazpenik eman ez bada; horren xedea da horien baldintzak lehenengoan edukian sarturik egon daitezela.

IV. KAPITULUA

Jarduera sailkatuaren lizentzia

48. artikulua. Kontzeptua eta xedea.

1. Jarduera sailkatuaren lizentzia ingurumen-arloko tokiko organoak emandako ebazpena da, ingurumenean eta hiri ingurunean, segurtasun edo osasun publikoan eta ondare historikoan inpaktu bat sor dezaketen jardueretarako eta instalazioetarako aginduzkoa eta aldez aurrekoa dena.

2. Udalaren ingurumen-arloko esku-hartzearen araubide horren menpean jarriko dira pertsonentzat, ondasunentzat edo ingurunerako arrisku, kalte edo eragozpenak eragin ditzaketen jarduera guztiak eta instalazio guztien ezarpena edo funtzionamendua, ez ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa, ez ingurumen-baimen integratua behar ez dutenak.

3. Halaber, ingurumenaren arloko tokiko esku-hartzearen araubidearen menpean jarriko da aurreko apartatuan aipatutako jardueren eta instalazioetako ezarpenaren eta funtzionamenduaren funtsezko aldaketa.

4. Jarduera sailkatuaren lizentzia eman, aldatu edo berrikusi ahalko da beste administrazio eskudun batzuenak izan eta legez eskatzen diren esku-hartze administratiboko beste ekintza batzuk aldez aurretik eduki gabe. Hori, aldi berean, ez da eragozpena izanen beste gisa batzuetako baimen edo emakidetakako; esate baterako urari buruzko araudian agindutakoak.

5. Ezin izanen da lizentzia behar duen inongo jarduera hasi edo instalazioa funtzionatzen jarri ingurumen zerbitzuek egiaztatu gabe lege honetan ezarritakoaren arabera eskatzen diren neurri zuzentzaileen eraginkortasuna, erregelamendu bidez zehazten den moduan.

6. Jarduera sailkatuaren lizentziak ingurumena babesteko, suteen prebentziorako eta osasuna babesteko beharrezkoak diren aginduak jasoko ditu, eta, kasua bada, emisioaren muga-balioak eta bidezkoak diren kontrol- eta berme-neurriak zehaztuko ditu.

49. artikulua. Jarduera sailkatuaren lizentziaren xedea.

Honako hau da jarduera sailkatuaren lizentziaren xedea:

a) Jatorrian prebenitzea edo/eta gutxitzea kutsadura akustikoa; hondakinen sorrera; substantzia kutsatzaileen emisioa airera, uretara edo lurzorura edo lurpera; dardarak, eta aurreko paragrafoan aipatutako jardueretatik datozen arrisku edo eragozpenen sorrera.

b) Osasun publikoaren eta ingurumenaren arloko prebentzio- eta babes- arrazoiengatik edo ondasunetan, oro har, eta ondare artistikoan, bereziki, gerta daitekeen eraginengatik esku hartzen duten organoen irizpideak eta aginduak bateratzea.

c) Udalaren eskumenen eremuko jarduerak direla-eta baliabide naturalen arrazoizko erabilera arautzea, eta behar diren baldintzak ezartzea ingurunea prebentzioaren bidez babesteko.

50. artikulua. Prozedura.

Erregelamendu bidez zehaztuko da jarduera sailkatuaren lizentzia emateko aplikatzekoa den prozedura; honako arau hauek bete beharko ditu:

a) Eskaera, sustatzaileak sinaturik egonen dena, jarduera edo instalazioa egitea proiektatuta dagoen udal-mugarteari dagokion toki entitatean aurkeztuko da.

b) Eskaerarekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da, gutxienez ere:

Lehena. Teknikari eskudunak egindako eta sinatutako proiektua, zeinak ingurumenari buruzko oroitidazki bat izanen baitu; honako hauek deskribatuko dira oroitidazkian: instalazioa edo jarduera, ingurunean duen eragina, prebentzio-neurriak eta ingurumeneko eragin negatiboetarako neurri zuzentzaileak.

Bigarrena. Honako hauei buruzko aginduzko dokumentazioa: suteen prebentzioa, ondare historikoaren babesa, osasunaren babesa eta hondakin eta isuriaren sorrera, eta atmosferarako eta lurzorurako emisioak.

Hirugarrena. Obra-lizentzia lortzeko eskatzen den dokumentazioa, baldin eta beharrezkoa bada.

c) Toki entitateak organo substantibo eskudunei aldeko txosten bat eskatuko die arestian aipatutako alderdiei buruz eta, bereziki, herritarren osasunaren eta segurtasunaren alderdiei buruz; halaber, aldeko txostenak eskatuko dizkio jarduerarekin lotutako alderdietan eskumenak dauzkan edozein administrazio edo organismori.

d) Udalerrri konposatuetan, txostena eskatuko zaie kasuan kasuko kontzejuei.

e) Toki entitateak eskaera eta harekin datorren dokumentazioa eta eskatutako txosten guztiak hilabetez jendaurrean jarri eta interesdunei entzunaldia emanen die; horretan, salbuespena izanen dira araudi indardunaren arabera konfidentzialtasun-araubideak babestuta dauden dokumentu eta datuak.

f) Jasotako alegazioak ebatzi ondoren, jardueraren lizentzia emateko edo ukatzeko ebazpenak, zeina eskatzaileari eta Foru Komunitateko ingurumen-organismoari jakinarazi beharko baita, amaiera ematen dio prozedurari. Ebazpena gehienez ere lau hilabeteko epean eman beharko da, eskaera aurkezten denetik kontatzen hasita.

g) Jarduera sailkatuaren lizentzia ematen duen ebazpenak, beste gai eta baldintza batzuen artean, gehieneko epe bat ezarriko du jarduera hasteko edo instalazioaren obren exekuzioa amaitzeko, obra-amaieraren ziurtagiriaren bitartez. Epe horiek ezin izanen dira urtebetetik gorakoak izan.

51. artikulua. Jarduerari uztea eta jarduera sailkatuaren lizentziaren iraungitzea.

1. Jarduera sailkatuaren lizentziaren titularrak lizentzia hori eman zuen organoari jardueraren aldi baterako uztea komunikatu beharko dio uzte hori gertatu eta hilabeteko epean.

2. Jarduera sailkatuaren lizentziak honako epe eta kasuetan iraungiko dira:

a) Jarduera, instalazioa edo proiektua ez denean egikaritzen hasten edo haien betearaztea jarduera sailkatuaren lizentzia emateko finkatutako epean guztiz amaitu ez denean; epe hori ez da sekula bi urtetik gorakoa izanen. Baldin eta epea ez bada berariaz finkatu, ulertuko da bi urtekoa dela ingurumen-lizentziaren jakinarazpena egin denetik kontatzen hasita.

b) Jardueraren edo instalazioaren egikaritzea bi urtetik gorako epean geratzen direnean.

3. Ingurumen-lizentzien iraungipena haiek eman zituen organoaren ebazpenez deklaratu beharko da, behin interesdunari entzunaldia emateko aginduzkoa den izapidea beteta.

52. artikulua. Jarduera sailkatuaren lizentziaren aldaketa.

1. Ingurumen-baimen integratua aldatzeko prozedura ofizios nahiz sustatzaileak eskatuta hasi ahalko da.

2. Jarduera sailkatuaren lizentzia aldatu ahalko da, kalte-ordainerako eskubiderik gabe, foru lege honetako 45.2. artikuluan aurreikusitako zioengatik.

3. Erregelamenduz zehaztuko da ingurumen-baimen integratua aldatzeko prozedura, instalazioaren funtsezko aldaketaren ondorioz ala beste arrazoiren baten ondorioz.

53. artikulua. Tokiko arau-garapena

1. Toki entitateek ordenantza bidez arautu beharko dituzte instalazioetan eta jardueretan foru lege honetan ezarritakoaren arabera errespetatu behar diren baldintza orokorrak, hartara pertsonen lasaitasuna, segurtasuna eta ongizatea bermatzeko, bai eta ingurumena eta haren ondasunak babesteko ere; hori ez da eragozpena izanen lokalizazioari eta kokapenei buruzko hirigintza-arauek eta aplikatzekoa den gainerako legeria orokorrak ezarritakoa betetzeko.

2. Toki entitateak amaierako onespina eman baino lehen, ingurumenaren arloko organo eskudunak ordenantza-proiektuari buruzko alde zuzeneko txostena eman beharko du, ingurumen-alderdi guztietan legezkoa dela bermatzearen ondore hutsetarako.

3. Udal ordenantzek inolaz ere ezin izanen dute, kasua bada, foru lege honetan edo haren erregelamendu bidezko garapenean aurreikusitakoez beherako ingurumen-babeseko neurririk ezarri.

V. KAPITULUA

Erantzukizunpeko adierazpena

54. artikulua. Aplikazio eremua, baldintzak eta ondoreak.

1. Erantzukizunpeko adierazpena interesdunak eta ardura duten teknikariek izenpetutako dokumentua da, zinean adierazten baitute, beren erantzukizunaren menpean, bete egiten direla eskubide bat edo ahalmen bat aitortzeko edo egikartzeko araudi indardunean ezarritako baldintzak, hori egiaztatzen duen dokumentazioa badagoela, eta konpromisoa hartzen duela hura betetzeko aitorten edo egikaritze horrek berez irauten duen denboran. Aurreikusita dauden erantzukizunpeko adierazpenen kasuan, adierazpenak berariaz aipatu beharko du, kasuan-kasuan, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioan, ingurumen-baimen integratuan edo ingurumen-lizentzian ezarritako betekizunen betetzea.

2. Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aipatutakoak berariaz jasota egon beharko dira, argitasunez eta zehaztasunez, kasuko erantzukizunpeko adierazpenean.

3. Erantzukizunpeko adierazpena interesdunak eta teknikari arduradunek sinatu beharko dute foru lege honen 32. artikuluan aurreikusitako ondoretarako.

4. Erantzukizunpeko adierazpenak aurkezteak aukera emanen du, oro har, proiektu edo instalazio bat abian jartzeko edo jarduera bat hasteko, aurkezten diren egunetik hasita; hori ez da eragozpena izanen kasuan-kasuan eskudun diren administrazio publikoek esleitura dauzkaten egiaztatze-, kontrol- eta ikuskatze-ahalmenetarako.

5. Toki entitateek jendearen eskura eduki beharko dute erantzukizunpeko adierazpenaren eredu bat.

55. artikulua. Jarduerari uztea.

Titularrak organo eskudunari komunikatu beharko dio jarduerari utziko diola, uzte hori gertatu eta hilabeteko epean.

VI. TITULUA

Ingurumenaren arloko erantzukidetasuna eta lankidetzaren

I. KAPITULUA

Ingurumena aldezteko jarduketak

56. artikulua. Jarduketetarako laguntza.

1. Foru Komunitateko administrazioek bai ekonomikoki, bai beste bide batzuen bitartez lagunduko diete irabazi asmorik gabeko entitateei ingurumena aldezteko beren jarduketetan Foru Komunitatearen lurraldean; horren barne dira jarduketa administratibo eta judizialak.

2. Jarduketa judizialen kasuan, laguntza ekonomiko hori baietsitako asmoen proportzioan egonen da, laguntza ekonomikoa jaso dezakeen prozeduraren kostuari dagokionez.

3. Foru Komunitateko Administrazioak bere aurrekontuetan berariazko partida bat edukiko du, behar den zuzkidurarekin, aurreko apartatuetan adierazitako ondoretarako.

4. Baldin eta aipatutako partida guztiz betearazi gabe badago aurrekontu-ekitaldi bakoitzeko azken hilabetean, eta ez bada aurreikusten haietan dauden zenbatekoak erabiltzea xede duten jarduerarako, ingurumena aldeztearekin lotutako beste jarduketa batzuk aurrera eramateko erabili ahalko dira.

II. KAPITULUA

Ingurune fisikoaren eta jasangarritasunaren babesa

57. artikulua. Ingurune fisikoa babesten duen pertsona eta ingurumena babesten duen pertsona.

1. Ingurune fisikoa babesten duen pertsonaren eta ingurumena babesten duen pertsonaren figurak sortzen dira, bai lurraldeko ingurunearen eta ingurune fisikoaren zaintzan, babesean eta hobekuntzan erantzunkidetasuna sustatzeko, bai herritarren eta entitate publiko zen pribatuen konpromisoa eta parte-hartzea bultzatzeko ere Foru Komunitateko ingurumenaren hobekuntza eta jasangarritasuna direla eta.

58. artikulua. Ingurune fisikoa babesten duen pertsona.

1. Ingurune fisikoa babesten duen pertsonaren izaera izanen dute honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiek: lurrak erabili edo ustiatzeko zilegitasuna ematen dien behar adinako titulua izatea, eta beren onibarrean gara daitezkeen jardueretarako baldintza gisa edukitzea ingurumena, habitatak eta natur baliabideak, bai eta haietan bizi diren espezieak ere, babestea eta hobetzea, nahiz eta horrek errentagarritasun-galera bat ekarri beren ustiategian edo hartaz gozatzean.

2. Aurreko apartatuan aipatutako pertsonen ingurune fisikoa babesten duten pertsonaren izaera hartuko dute Nafarroako Ingurumenaren Institutuarekin kasuko lankidetzaz-hitzarmen bat sinatuz.

3. Aurreko apartatuan aipatzen diren hitzarmenek interesdunek beren gain hartutako betebeharrak eta Foru Komunitateko Administrazioak bere gain hartutakoak zehaztuko dituzte, honako gutxienezko eduki honekin:

a) Legeria indardunaren indarrez eskubide diren erabilera eta aprobetxamenduak baldintzatzeko eta haiek egiteko modua ingurumenaren ikuspuntutik egokitzeko hartzen diren konpromisoak, edo biodibertsitatearen kontserbazioan edo lurraldean presente dauden eta balio handiena duten natur baliabideen leheneratzean aktiboki parte hartzeko konpromisoak.

b) Foru Komunitateko Administrazioak bere gain hartutako konpromiso eta kalte-ordainak, interesdunek beren gain hartutakoen arabera. Aurreikusitako kalte-ordainek aurrekontu-edukia dutenean, hitzarmenaren eraginkortasuna dagokion aurrekontuaren onespeneraren menpean egonen da.

c) Berritzearen iraupena eta baldintzak.

d) Berariaz adieraztea ezen ingurune fisikoa babesten duen pertsonak hitzarmenaren ez-betetzeren bat egitekotan, Administrazioak hura egiaztatu duenean eta interesdunak behar den errekerimenduaren jakinarazpenetik bi hilabeteko epean hura zuzendu ez badu, berekin ekarriko duela, ordenamendu juridikotik ondoriozta daitezkeen gainerako ondorioez gainera, ingurune fisikoaren laguntzailearen izaera eta figura horrek dauzkan onurak galtzea, ez-betetzea egin zen egunetik aurrerako ondoreekin.

4. Arau honek aipatzen dituen hitzarmen guztiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

5. Arau honetan araututako hitzarmenen sinaduratik datozen neurri eta pizgarriak bateragarriak izanen dira beste pizgarri batzuekin edo ingurumenaren babesa sustatzeko beste neurri batzuekin.

59. artikulua. Foru Komunitateko ingurumena babesten duen pertsona.

1. Gisa guztietako baliabideak jartzeko eta lurralde- eta ingurumen-izaera duten jarduketa eta proiektuetan Foru Komunitateko administrazio eskudunekin lankidetzan jarduteko konpromisoa hartzen duten pertsona fisiko zein juridikoek, beren borondatez ingurumenaren eta jasangarritasunaren laguntzaileen erregistroan izena emanda daudenean, Foru Komunitateko ingurumena babesten duen pertsonaren izaera eduki ahalko dute.

2. Foru Komunitateko ingurumena babesten duen pertsonaren izaerak lehentasuna emanen du laguntza publikoak eta diru-laguntzak lortzeko ingurumenaren babeslea izatearekin lotutako ingurumen-babeseko neurriak direla eta.

3. Ingurumena babesten duen pertsonaren izaera aintzat hartu beharko da Foru Komunitateko administrazio publikoek eta sektore publikoko entitateek egiten dituzten kontratuak adjudikatzerakoan eta gaikuntza ematen duten titulu administratiboak ematerakoan, halakoek norgehiagoka bidez eman beharreko emakidak edo baimenak lortzearekin lotutako kontratu edo jardueren deialdietan. Ondore horietarako, administrazio-klausula partikularren pleguek eskaintzak baloratzeke aurreikusitako gehieneko puntuazioaren % 5 birtarte emanen diete Foru Komunitateko lurraldearen eta ingurumenaren babeslearen izaera egiaztatzen duten lizitatzailerei, halakoan gisara egin dituzten ekarpenen arabera.

III. KAPITULUA

Ingurumena hobetzeko beste akordio boluntario batzuk

60. artikulua. Sustapena

1. Foru Komunitateko administrazio publikoek sustatuko dute borondatezko akordioak egin daitezela ingurumenaren arloa dela-eta legez ezarritako baldintzak hobetzeko.

2. Borondatezko akordioak honako hauek izan ahalko dira:

a) Eragile ekonomiko eta sozialen eta Foru Komunitateko administrazio publikoen artean egindako akordioak.

b) Pertsona fisiko zein juridikoen eta Foru Komunitateko administrazio publikoen artean ingurumena babesteko egindako akordioak, aurreko kapituluan araututako hitzarmenak direla-eta jasotakoez beste eduki eta helburu batzuekin.

c) Industria-sektoreak, beste sektore ekonomikoek edo sektore sozialek Foru Komunitateko Administrazioa edo Foru Komunitateko beste administrazio batzuk osatzen dituzten organoetako batekin hartutako konpromisoak, Nafarroako Ingurumenaren Institutuak aldeko txostena eman ondoren.

3. Akordioak lotesleak izanen dira haiek izenpetzen dituzten aldeentzat.

4. Enpresek borondatezko akordioak egiteko kasuan, enpresa horiek langileen legezko ordezkari informatuko diote borondatezko akordioaren xedeari eta edukiari buruz haiek egin baino lehen.

5. Bereziki sustatuko da Foru Komunitateko administrazio publikoen menpeko enpresek eta sozietateek erabaki hauek har ditzatela.

IV. KAPITULUA

Borondatezko kontrolak

61. artikulua. Tipologia.

1. Eragile ekonomiko eta sozialek borondatezko kontrolak egin ahalko dituzte beren borondatez, honako tresna hauetatik edozeini atxikitzearen bidez:

a) Ingurumen-kudeaketako eta -auditoriako sistema bati beren borondatez atxikitzen zaizkion erakundeetara buruzko araudi indarduneari aurreikusita dauden ingurumen-kudeaketako sistemak.

b) ISO edo UNE nazioarteko arau teknikoek araututako ingurumen-kudeaketako sistema.

c) Produkzio eta etiketatze ekologikoak.

d) Jarduera ekonomikoaren diagnostiko bat lortzea helburu duten ingurumen-auditoriak, honako hauei dagokienez: kutsatzaileen emisioa, hondakinen produkzioa, lehengaien, energiaren eta uraren kontsumoa eta ingurumen-erlora legeria indardunaren betetze-maila, bai eta auditatutako jarduerak eskatzen den ingurumen-kudeaketa segurtatzeko daukan gaitasuna ere. Xedea da jarduera ekonomikoaren emaitzen hobekuntza jarraitua sustatzea, ingurumenari dagokionez.

2. Administrazio publikoek ere beren jarduera aurreko apartatuan aipatutako borondatezko kontrolen menpean jarri ahalko dute.

3. Nafarroako Ingurumenaren Institutua izanen da borondatezko kontrol horiek sustatzeko eta haren aplikazio zuzena zaintzeko eskumena izanen duena.

62. artikulua. Borondatezko kontrolak antolamenduetan eta enpresa txiki eta ertainetan.

Nafarroako Ingurumenaren Institutuak laguntza ekonomikoak eman ahalko ditu sustatze aldera antolamenduak eta enpresa txiki eta ertainak aurreko artikuluan aipatutako borondatezko kontrolak metodoetatik edozeini atxiki dakizkiola.

63. artikulua. Ingurumen-egiaztatzaileak ziurtatzeko entitateak.

1. Foru Komunitateko Administrazioak ingurumen-egiaztatzaileak ziurtatzeko eta gainbegiratzeko entitateak izendatu edo aitortu ahalko ditu; halakoek Europako araudian edo Estatuko oinarritzko araudian eskatutako baldintzak bete beharko dituzte.

2. Izendapen hori erretiratuko da, entitateari entzunaldia emanda, azken horrek ez dituen betetzen bere ziurtatzea edo aplikatzekoa den araudian ezartzen zaizkien eginkizun edo betebeharrak determinatu zituzten baldintzak.

64. artikulua. Ingurumen-kudeaketako sistemen eta ingurumen-auditorien sustapena

1. Foru Komunitateko Administrazioak sustatuko du enpresetan ingurumen-kudeaketako sistemak ezar daitezela, eta laguntza ekonomikoak eman ahalko ditu sustatze aldera antolamenduak eta enpresa txiki eta ertainak aurreko artikuluetan aipatutako borondatezko kontrol- eta metodoetatik edozeini atxiki dakizkiola.

2. Administrazio publikoek aurreko apartatueta jasotako borondatezko kontrol-sistemak eta auditoriak ezarriko dituzte enpresen eta sozietate publikoen ingurumen-kudeaketa ebaluatzeko.

3. Administrazio publikoek sustatuko dute ingurumen-auditoriak edo ekoauditoriak egin daitezela, jarduera ekonomikoak garatzen dituzten enpresen ingurumen-kudeaketa ebaluatzeko sistema gisa, eta dagokien jendaurreko informazioa ere eman dadila.

4. Ingurumen-auditoriak egitea baldintza bat izan ahalko da laguntzak eta diru-laguntzak edo kenkari fiskalak jasotzeko.

V. KAPITULUA

Nafarroako Foru Administrazioaren ingurumen-kalitatearen bereizgarria

65. artikulua. Bereizgarria eskuratzeko baldintzak.

1. Nafarroako Ingurumenaren Institutuaren ingurumen-kalitatearen bereizgarria sortzen da honako baldintza hauek betetzen dituzten enpresentzat edo/eta profesionalentzat:

a) Foru Komunitatean instalazioak edukitzea eta bertan produktuak fabrikatu eta saltzea edo zerbitzuak ematea.

b) Ziurtatzea beren jardueran kudeaketa-ekimen garrantzitsuak eramaten ari direla aurrera merkatuan jartzen dituzten produktu edo zerbitzuen produkzio- eta kalitate-prozesuetako etekin ekologikoa hobetzeko, ingurumen-terminoetan esanda; honako hauek, esate baterako:

Lehena. Produkzio-prozesuaren ingurumen-inpaktua gutxitzea.

Bigarrena. Norberaren borondatez jartzea akordioen menpean edo borondatezko kontrol- eta tresnei atxikitzea; esate baterako, foru lege honen titulu honetan araututakoei.

Hirugarrena. Berrikuntza eta inbertsio aipagarria produkzio-prozesuetan gutxiago kutsatzen duten teknologietan.

Laugarrena. Txosten zorrotz eta auditatuak argitaratzea garapen jasangarriaren helburuak lortzeko edo aztarna ekologikoa gutxitzeko egiten diren ekarpen aipagarriei buruz.

2. Gutxienez ere urtean behin berrikusiko da eutsi egiten zaiela kalitatearen bereizgarria ematea ekarri zuten inguruabarrei.

66. artikulua. Helburuak.

Honako helburu hauek ditu Nafarroako Ingurumenaren Institutuaren ingurumen-kalitatearen bereizgarriak:

a) Sustatzea enpresek inbertsioak egin ditzatela honako baldintza hauek betetzen dituzten produktu eta zerbitzuen sustapenean, diseinuan, produkzio eta merkaturatzean, erabileran eta kontsumo efizientean:

Lehena. Erraztea hondakinen sorrera ahal den txikiena izan dadila eta azpiproduktuen, gaien eta haietan dauden substantzien berreskurapena eta berrerabilpena.

Bigarrena. Haiek produzitzea berrerabilitako edo birziklatutako azpiproduktuekin, gaiekin edo substantziekin, edo baliabideen –bereziki uraren eta energiaren– aurrezkoa dakartenekin.

b) Erabiltzaileei edo kontsumitzaileei enpresei buruzko informazioa ematea, garapen jasangarriaren helburuak lortzeko egiten duten ekarpenari dagokionez, bai eta merkatuan jartzen dituzten produktu eta zerbitzuen kalitateari dagokionez ere, ingurumenarekin daukaten elkarrenergina dela eta.

67. artikulua. Bereizgarriaren erregulazioa.

Erregelamendu bidez ezarriko da bereizgarri hori zein kategoriatan sailkatu ahalko den, hura emateko irizpideak, hura erabiltzeko baldintzak eta hura emateko prozedura; halaber, bereizgarria edukitzea berrikusteko, eteteko edo errebotatzeko prozedurak ezarriko dira.

68. artikulua. Laguntzak eta zerga-onurak.

1. Administrazio publikoek kontratazio publikoko prozeduretan baloratu beharko dute lizitatzailerik ingurumen-kalitatearen bereizgarria lortzea eta mantentzea, foru lege honen 59.3 artikuluan ezarritako baldintzetan.

2. Halaber, administrazio publikoek laguntzak eta zerga-onurak eman ahalko dizkiete ingurumen-kalitatearen bereizgarria dutenei.

69. artikulua. Kalitatearen bereizgarria galtzea.

Kalitatearen bereizgarria kenduko zaie hura emateko inguruabarrak jada ez dauzkaten pertsona edo entitate guztiei; hori, halere, ez da eragozpena izanen kasuko zehapen-prozedura izapidetzeko, baldin eta arau-hauste administratibo bat egin bada.

VI. KAPITULUA **Erregistroa**

70. artikulua. Erregistroa eta publizitatea.

1. Ondoren aipatzen direnak erregistro publiko batean inskribatuko dira, eta publikoak izanen dira, araudi indardunean aurreikusitako mugekin:

a) Titulu honen II. kapituluak eta haren aurretik datozen artikuluek aipatzen dituen hitzarmen edo konpromisoak, Nafarroako Ingurumenaren Institutuarekin sinatuta daudenak, dagokien kategorian, haiek izenpetu dituztenak identifikatuta. Dokumentu horiek izenpetzen direnetik 15 eguneko epean inskribatu beharko dira. Erregistroan, halaber, luzapenak, gorabeherak edo ingurune fisikoaren edo jasangarritasunaren laguntzailea den pertsonaren izaera galtzea jaso beharko dira.

b) Beste gisa bateko akordio eta konpromiso sinatuak, zeinak titulu honen III. kapituluan araututa baitaude. Erregistro honi, Foru Komunitateko Administrazioaren organoei eta erkidego horretako gainerako administrazioei jakinarazi beharko zaie akordio eta konpromiso horiek badaudela, haiek egin direnetik gehienez ere 15 eguneko epean.

c) Ingurumen-kudeaketako eta ingurumen-auditorietako sistemen menpe edo haiei atxikita dauden edo aitortutako ingurumen-kudeaketako sistemaren bat ezarrita duten zentroen identifikazioa –horiek titulu honen IV. kapituluan aipatuta daude–, bai eta auditorien emaitzak ere; azken horiek jendaurrean jarriko dira haietatik datorren diagnostikoaren bitartez.

d) Nafarroako Ingurumenaren Institutuaren ingurumen-kalitatearen bereizgarria duten enpresak edo profesionalak.

2. Erantzunkidetasuneko eta ingurumen-laguntzako tresna horietako baten menpean dauden pertsona edo entitate guztiek inguruabar horren publizitatea egin ahalko dute, herritarrei informatzeko; bereziki, publizitatea egin ahalko da ingurumen-kalitatearen bereizgarria edukitzeari buruz.

VII. TITULUA **Natur baliabideen babesa**

71. artikulua. Biodibertsitatea eta jasangarritasuna.

1. Administrazio publikoek eta gainerako erakundeek bultzatutako edozein politikak honako hauei erreparatu beharko die: biodibertsitatearen kontserbazioa, natur baliabideen erabilera jasangarria eta baliabide horien erabileratik datozen onuretako parte-hartze zuzen eta ekitatiboa.

2. Xede hori erdiesteko, administrazio publikoek, arloz arloko politiken diseinuan eta plangintzan, honako hauek hartu beharko dituzte kontuan:

a) Kontserbaziorako eta erabilera jasangarriko garrantzitsuak diren dibertsitate biologikoko elementu desberdinak identifikatzen dituen analisi edo azterlan bat egitea; horretan, adierazleak eta balorazio-irizpideak definituko dira, eta elementu horietako bakoitza dela-eta gertatzen diren arriskuak xehakatuko dira.

b) Ildo estrategikoak, planak eta programak prestatzea biodibertsitatea kontserbatzeko eta natur baliabideen erabilera jasangarriko, kontuan hartuta bereziki aurreko letran aipatutako analisisian edo azterlanean jasotako jarraibideak.

c) Arriskuren bat duten biodibertsitate-elementuak kontserbatzeko neurriak proposatu eta betearaztea; besteak beste, honako hauek ezarriko dira: elementu bakoitzaren bilakaerari buruzko datu-baseak, biodibertsitatearen korridoreak, bereziki babestutako eremuak eta espezie aloktonoen eta genetikoki aldarazitako organismoen sarrerari buruzko kontrolak.

d) Biodibertsitateari eragindako kalteak konpontzeko neurriak betearaztea, ahal den neurrian; habitat degradatuak birgaitzea eta leheneratzea, eta mehatxatuta dauden landarediko eta faunako espezieak kontserbatzea.

e) Dibertsitate biologikoaren kontserbazioarekin, konpontzearekin eta erabilera jasangarriarekin lotutako ikerketa sustatzea, eta interes-arloetako adituak prestatzea biodibertsitatearen ezagutzan eta kudeaketan.

f) Beharrezkoak edo gomendagarriak diren lankidetzako eta koordinazioko neurri guztiak hartzea.

3. Bai administrazio publikoek, bai edozein pertsona fisikok edo juridikok honako hauek egin beharko dituzte:

a) Erakunde publikoen eta eragile sozialen konpromisoa eskatu eta sustatzea dibertsitatearen eta natur baliabideen erabilera jasangarriaren aldeztua dela eta.

b) Biodibertsitateari kalteak saihestea eta behar diren prebentzio-neurriak hartzea hura arriskuan egoteari buruzko ezagutzaren bat badagoenean; halaber, kaltea konpontzen laguntzea, halakorik eskatu behar zaienean.

c) Herritarrei zuzendutako zabalkundea eta haien ezagutza eta kontzientziatzea bultzatzea.

d) Lankidetzako programetan parte hartzea eta laguntzea.

e) Paisaiaren kontserbazioa zaintzea.

72. artikulua. Ingurumen atmosferikoa.

1. Administrazio publikoek, nor bere eskumenen eremuan, beharrezkoak diren jarduketak guztiak ezarriko dituzte airearen ingurumen-kalitatea hobetzeko; horretarako, beste neurri batzuen artean, emisiorako mugabaliok ezarriko dituzte, eta haien betetzea kontrolatuko dute.

2. Nafarroako Gobernuak "Airearen kalitatearen eta hura babesteko neurrien informazio-sarea" sortuko du, Ingurumen Informazioaren Sarearen berariazko atal gisa.

3. "Airearen kalitatearen eta hura babesteko neurrien informazio-sarean" honako datu hauek argitaratuko dira:

a) Airearen kalitatea zehazteko aintzat hartzen diren parametroei buruzko informazioa, bai eta aire-kalitate onargarri bat edukitzeko parametro horien gehieneko eta gutxieneko balioak ere.

b) Airearen kalitateari buruz Foru Komunitateko lurraldeko hainbat puntutan egindako aldizkako neurketen emaitzak; horren lanketa natur baliabideen babesa arautuko duen foru legean garatu eta finkatuko da, aintzat hartuz atmosferaren kalitatea dela-eta Foru Komunitatean dauden eremu desberdinak.

c) Airearen kalitatea dela-eta garrantzia duten gorabeherak.

d) Ingurumen-kalitatea hobetzeko hartu edo betearazi behar diren aparteko neurriak, kalitate horrek arrisku edo kalte aipagarria duen egoeretan.

4. Toki entitateek Nafarroako Ingurumenaren Institutuari igorriko diote airearen kalitateari buruz daukaten informazioa, "Airearen kalitatearen eta hura babesteko neurrien informazio-sarean" jaso dezan.

5. Airearen kalitate egokiaren atalaseak gaintzen diren kasuetan edo haiek gaintzeko berehalako arriskua dagoenean, Nafarroako Ingurumenaren Institutuak informazio hori herritarren artean zabalduko du, zehaztuz, gainera, pertsonen edo/eta animalien eta landareen –bereziki giza kontsumorako diren– osasunerako kalteak saihesteko hartu beharko liratekeen prebentzio-neurriak.

6. Halaber, Nafarroako Ingurumenaren Institutuak aurreko apartatuan aurreikusitako informazioa emanen die ezarritako atalaseak gaintzeagatik edo arrisku edo kalte aipagarriko egoerak gertatzen direlako ukituta egon daitezkeen gainerako autonomia-erkidegoei edo estatuei.

73. artikulua. Ura.

1. Foru Komunitateko administrazio publikoek uraren kalitatearen maila optimoa bermatuko dute, hark duen erabilerearen arabera eta hartan bizi den faunaren eta landarediaren arabera; halaber, bermatuko dute pertsona fisiko eta juridiko guztiek ur-ingurumenari buruzko edozein alderdiri buruzko araudia betetzen dutela.

2. Orobat, Nafarroako Ingurumenaren Institutuari informatuko diote uraren kalitatea dela-eta detektatzen duten edozein gorabeherari buruz, institutuak informazio hori helarazi ahal diezaien ukitutako pertsona fisiko edo juridikoek, interesdun diren Foru Komunitateko administrazioei eta gorabehera horiek ukituta egon daitezkeen gainerako autonomia-erkidego edo estatuei.

3. Nafarroako Ingurumenaren Institutuak neurketak eginen ditu natur baliabideen babesa xehetasunez arautuko duen foru legean zehaztutako aldizkakotasunarekin eta tokietan, eta horiek behar bezain adierazgarriak izanen dira lurraldeen dibertsitatea eta Foru Komunitateko urak direla eta.

74. artikulua. Lurzorua eta lurpea.

1. Foru Komunitateko administrazio publikoek, nork bere eskumenen eremuan, zainduko dute zorrotz bete dadila lurzorua babesteko eta haren erabilerak erregulatzeko araudia; halaber, zainduko dute edozein arau-hauste gertatu ondoren ahal den bezain laster emanen zaiola konponbidea eta dagokion zehapena ezarriko dela.

2. Lurzorua babesa, halaber, oinarritzko betebeharrak bat da pertsona fisiko edo juridiko ororentzat, bereziki edukitzaileentzat edo jabeentzat; horiek, izan ere, dagozkien prebentzio-, defentsa- eta leheneratze-neurriak hartu beharko dituzte.

75. artikulua. Argiaren kutsadura.

1. Foru Komunitateko administrazio publikoek bermatu beharko dute argi-kutsadura pertsonentzat eta biodibertsitaterako kaltegarriak diren mailetatik behera dagoela.

2. Arlo honetan, Nafarroako Gobernuak batzorde tekniko bat sortu beharko du, zeina organikoki Nafarroako Ingurumenaren Institutuaren menpean egon behar baita, eta batzorde horrek analizatu eta aztertuko ditu eremu eta ordutegi desberdinetako argi-kutsaduraren gehieneko onargarriak, eta azterlan xehakatu bat eginen du Foru Komunitateko argi-kutsaduraren egungo egoerari buruz.

3. Natur baliabideen babesa arautzen duen foru legeak, behin aurreko apartatua aipatutako azterlanak eginda, honako hauek finkatu beharko ditu: argiaren zonifikazioa, argi-kutsaduraren gehieneko mugak, ordutegi-xehakatzeari buruzko delak, erabilerarako mugak eta murriztapenak, eragindako kalteen konponbidea eta gainerako administrazio publikoek horri buruz dauzkaten eskumenak.

76. artikulua. Zarata.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek behar diren neurriak hartu beharko dituzte saiheste aldera kutsadura akustikoko gehieneko maila onargarriak gainditzen direla, eta bermatuko du kutsadura-mota horri buruzko araudia betetzen dela; halaber, neurriak hartuko ditu, aurrekoak betetzen ez badira, egoerari konponbidea ahal den azkarrena eman dakion, egin daitezkeen kalte txikiak eraginez.

77. artikulua. Dardarak.

1. Foru Komunitateko administrazio publikoek, nork bere eskumenen eremuan, kontrolatuko dute foru lege honetan araututako jarduerak sortzen dituzten dardarak ez dituztela gainditzen pertsonentzat eta ingurumenarentzat kaltegabeak diren atalaseak.

78. artikulua. Hondakinak.

1. Foru Komunitateko administrazio publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte hondakinen arloko araudi indarduna betetzen dela bermatu eta kontrolatzeko.

2. Halaber, edozein pertsona fisikok edo juridikok, pribatuk zein publikok, arriskutsua izan daitezkeen hondakin baten isuriaren berri edo toki desegokian biltegiturata egotearen berri baduenak, informazio hori Nafarroako Ingurumenaren Institutuari helarazi beharko dio.

3. Nafarroako Ingurumenaren Institutuak ezagutzera emanen du hondakin arriskutsuak badaudela, halako moduz non bermatuko baita isurketa horrek ukitutako pertsona guztien edo balizko taldeen irispidean egotea informazio hori, eta hartu beharreko prebentzio-neurriak buruz informatuko du.

VIII. TITULUA

Ingurumen-erantzukizuna

79. artikulua. Printzipio orokorrak.

Pertsona fisiko edo juridiko guztiek behar diren neurriak hartu beharko dituzte ingurumen-kalteak saihesteko, eta eragindako kalteak konpondu beharko dituzte, Europako araudian eta gaiari buruzko Estatuko legeria oinarritzkoan jasotako kasu eta baldintzetan.

80. artikulua. Arau-garapena eta betearaztea.

Foru Komunitateko Administrazioak legeria garatzeko eta oinarritzko izaerako araudia betearazteko eskumenak egitaritu beharko ditu, eta eraginkortasun-, koordinazio- eta lankidetzaren printzipioen arabera jokatu beharko du gainerako administrazio publikoekin.

81. artikulua. Pertsona juridiko publikoen erantzukizuna.

1. Administrazio publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte bermatze aldera haien menpekoak diren pertsona juridikoek zorrotzasunez eta geroratu gabe betetzen dituztela dagozkien ingurumen-ardurekin lotutako betebeharrak.

2. Halaber, administrazio publikoek sustatuko dute haien menpekoak diren pertsona juridikoek, beren borondatez, onar ditzatela ingurumen-erantzukizunari buruzko araudian aurreikusitakoak baino zorrotzagoak diren konpromiso eta betebeharrak, eta haien betetzea eskatuko dute.

82. artikulua. Kontratazio publikoa.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek kontratazio publikoko prozeduretan aintzat hartu beharko dute lizitatzailleengan gerta daitezkeen ingurumen-erantzukizuneko neurrien ez-betetzeak, eta lizitatzailleek horri buruz eskatzen zaien informazioa eman beharko dute.

IX. TITULUA

Betearazte-neurriak

83. artikulua. Hertsapen-isunak.

1. Foru lege honetan eta hura garatzen duen araudian ezarritako prebentzio-, babes-, berrezartze- edo leheneratze-betebeharrak betetzeko ardura duenak ez dituenen haiek betetzen horretarako ezarritako epean, ingurumen-organoak, aurrez errekerimendua eginda, erabaki ahalko du hertsapen-isunak ezartzea, administrazio-prozedura erkideari buruzko oinarritzko araudian jasotako kasuetan.

2. Hertsapen-isunak errepikatu ahalko dira, batetik bestera gutxienez hilabetea iragan bada.

3. Zehazki, atzera ekartzeko edo berrezartzeko betebeharra gauzatzeko jarritako epeak amaitu ondoren, hura gauzatu ez bada, ingurumen-organoak bata bestearen atzetik hamabi hertsapen-isuneraino jartzea erabaki ahalko du, hilabetez, eta 600etik 6000 eurora bitartekoak, aurreikusitako neurriak zein diren.

4. Hertsapen-isunen zenbatekoa handitzen joan ahalko da ondoz ondo, egindako arau-hausterako aurreikusitako isunaren erdira iritsi arte, eta honako irizpide hauei begiratuta finkatuko da:

a) Betebeharra betetzen atzeratzea.

b) Nahita edo behin baino gehiagotan egitea.

c) Eragindako kalteen izaera eta, zehazki, kalteak baliabide eta espazio bakanetan, eskasetan edo babestuetan eragitea.

5. Ordaintzeko betebeharra duenak ordaintzen ez badu, hertsapen-isunak premiamenduaren bidetik eskatu ahalko dira.

6. Hertsapen-isunak eta ezar litezkeen zehapenak independenteak eta bateragarriak izanen dira.

84. artikulua. Prebentzio- eta kautela-neurrien, neurri zuzentzaileen eta leheneratze-neurrien betearazte subsidiarioa.

1. Funtzionatzen ari den zein aldi batez geldituta edo behin betiko itxita dagoen ingurumen-arloko esku-hartzearen menpeko jarduera baten titularrak ez duenean hartzen inolako prebentzio- edo kautela-neurririk, edo neurri zuzentzailearik, edo ingurumen-legeria eta ingurumena bera leheneratzeko neurririk, ekintza hori eskatu duen Administrazio Publikoak, aurretiaz ohartarazita, agindu hori subsidiarioki gauzatu ahalko du erantzulearen kargura, Estatuko oinarritzko legerian aurreikusitakoari jarraituz; egintza subsidiario horren ondoriozko gastuak premiamendu-bidetik eskatu ahalko ditu.

2. Betearazte subsidiarioa erantzuleen kontura egingen da, eta hori ez da eragozpena izanen gerta daitezkeen gainerako zehapen eta kalte-ordainetarako.

85. artikulua. Premiamendu-bidea.

1. Zehapenen, hertsapen-isunen eta ingurumenaren leheneratze-jardueren betearazte subsidiarioarengatik gastuen zenbatekoa eta eragindako kalte-galerengatik kalte-ordainak premiamendu-bidez eskatu ahalko dira.

X. TITULUA

Zaintza eta ikuskapena

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

86. artikulua. Zaintzaren, ikuskapenaren eta kontrolaren menpeko jarduerak

Honako hauek izanen dira ingurumen-zaintzaren, -ikuskapenaren eta -kontrolaren xede: Nafarroako Foru Komunitatean garatutako edo ezarritako jarduera, jarduketa eta instalazio guztiak, foru lege honen aplikazio-eremuan sartzen direnak; administrazio publikoen ingurumen-arloko esku-hartzea, foru lege hau aplikatuta egiten dena, eta foru lege honen VI. tituluan araututako ingurumen-hobekuntzaren arloko erantzunkidetasuneko eta lankidetzako tresna guztiak.

87. artikulua. Eskumenak.

1. Nafarroako Ingurumenaren Institutuari dagokio ingurumenarekin lotutako jardueren, jarduketan eta instalazioen zaintza-, ikuskatze- eta kontrol-eginkizunak betetzea; halere, hori ez da eragozpena izanen Foru Komunitateko Administrazioaren beste organo batzuei eta gainerako administrazioei, beren eskumenen eremuan, dagozkienetarako.

2. Foru Komunitatearen lurraldean zaintza-, ikuskapen- eta kontrol-eginkizunak betetzeko eskumena duten administrazioek modu koordinatuan jardunen dute beren eginkizunak egikaritzera.

3. Toki entitate batek uste duenean zaintza-, ikuskapen- eta kontrol-neurrien arloko eskumenaz baliatzeko ezinduta dagoela, Foru Administrazioari eskatu ahalko dio eginkizun horretan lagun diezaion; horretarako, eskatuko da baliabide teknikoaren zein materialen eta giza-baliabideen falta arrazoitu dezan.

88. artikulua. Zaintza-, ikuskapen- eta kontrol-eginkizunetarako langile eskudunak.

Foru lege honetan xedatutakoaren ondoretarako, aurreko kapituluetan aipatutako lanak Ingurumen Ikuskatzaitzari atxikitako langile publikoek, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek, Tokiko Poliziak eta Foru Komunitateko basozainek egin ahalko dituzte.

89. artikulua. Entitate laguntzaileak

1. Ingurumen-arloan eskuduna den departamentuaren entitate laguntzaileak dira departamentu horrek berak, aplikatzeko den araudiaren arabera, behar bezala ziurtatutako pertsona juridikoak, publiko zein pribatuak.

2. Entitate horiek ez dute agintaritza publikoaren izaera edukiko.

3. Entitate horiek ingurumen-ikuskapenean laguntza teknikoa eman ahalko dute araudian aurreikusitako mugako balio desberdinen neurketa- eta ebaluazio-jarduketak direla eta.

4. Entitate laguntzaileek jardueren edo instalazioen titularrek eskatuta jardunen dute, araudiak eskatzen duena betez, edo Nafarroako Ingurumenaren Institutuak nahiz ingurumen-arloan eskuduna den kontseilaritzak berariaz aginduta.

5. Entitate laguntzaileek honako arlo hauetan jardun ahalko dute:

- a) Ingurumen-prebentzioa eta -kontrola.
- b) Ingurune atmosferikoaren kalitatea.
- c) Ur-ingurunearen kalitatea.
- d) Lurzoruaren kalitatea.
- e) Kutsadura akustikoa eta argi-kutsadura.
- f) Dardarak.
- g) Hondakinak.

6. Entitate laguntzaileek beren jarduketak txostenen bitartez dokumentatuko dituzte, eta horien kopia bat eskuratuko diote ikuskatutako pertsonari. Txosten horiek kasuko ikuskapen-aktari erantsiko zaizkio, baldin eta entitate laguntzaileek ingurumen-ikuskatzaitzarekin batera jarduten badute.

II. KAPITULUA **Ingurumen-ikuskapenak**

90. artikulua. Ingurumen-ikuskatzaitza.

1. Ingurumen-ikuskatzaitza Nafarroako Ingurumenaren Institutuari atxikita egonen da, eta hura osatzen duten ikuskatzaitzeek zein ingurumenaren arloko ikuskapen edo kontrolak egin ditzaketen beste eragileek modu koordinatuan jardun beharko dute.

2. Beren ikuskapen-, zaintza- eta kontrol-eginkizunetan ari direla, ingurumen-ikuskatzaileak agintaritzaren agentetzat hartuko dira, bereziki erresistentziaz, desobedientziaz edo zigor daitekeen haien aurkako beste edozein egintzaz baliatzen direnen erantzukizun administratiboari eta zigor-arloko erantzukizunari dagokienez, zerbitzuaren ari direla nahiz zerbitzuaren karietara.

91. artikulua. Ingurumen-ikuskapena koordinatzeko batzordea.

1. Ingurumen-ikuskapena Koordinatzeko Batzordea sortzen da. Hartan parte hartuko dute arlo honetan ikuskapen-jarduketak egiten dituzten organo edo entitateek.

2. Erregelamendu bidez zehaztuko da batzorde horren osaera zehatza. Batzordean parte hartu beharko dute, nahitaez, ingurumenaren arloko langile teknikoen, basozainen, arloko eskumenak dituen Foruzaingoko dibisioaren, SEPRONAREN eta NUKFen ordezkariak. Halaber, zehapen-ahalmena duten pertsonak osatuko dute organo hori.

3. Batzordea gutxienez ere hiru hilean behin bilduko da.

92. artikulua. Ingurumen-ikuskapena Koordinatzeko Batzordearen eginkizunak.

Ingurumen-ikuskapena Koordinatzeko Batzordeak eginkizun hauek beteko ditu:

– Gai honetan esku hartzen duten agenteek egin beharreko ikuskapen-lanak koordinatzea, jarduketan gisa guztietako bikoizteak saihestuz.

– Ikuskapenak egiteari buruzko zirkularrak edo irizpideak ematea, edo ikuskapenak egiten dituzten agenteen jarduteko moduan inkoherentziak edo kontraesanak saihestera bideratutako beste edozein motatako dokumentuak.

– Batzorde horri jakinarazi ahal zaizkion arazo edo gaiak aztertzea, ingurumen-ikuskapenak gauzatzeari dagokionez.

– Ingurumen-ikuskapenean esku hartzen duten agenteek izan dituzten esperientziak, zailtasunak eta trabak amankomunean jartzea.

– Ingurumen-ikuskapena dela-eta erregelamenduz esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak.

93. artikulua. Gaitasun teknikoa.

1. Ingurumen-ikuskatzailetza hainbat espezializazio-arlotan antolatuta egonen da, ingurumenaren babesak hartzen dituen gaien arabera.

2. Ingurumen-ikuskatzailetzaren arlo bakoitzari atxikitako ingurumen-ikuskatzaileek ezagutza teknikoak eta espezializazio nahikoa eduki beharko dituzte beren ikuskapen-arloak berezko dituen gaien buruz.

3. Nafarroako Ingurumenaren Institutuak aukera eman ahalko du ikuskapenei atxikitako langileen mugikortasuna ahalbidetzeko Ingurumen-ikuskatzailetzako arlo desberdinetan, betiere mugikortasun horrek garatu nahi duen arlorako gaitasun teknikoa eta behar adinako espezializazioa badute.

94. artikulua. Prestakuntza.

1. Nafarroako Ingurumenaren Institutuak prestakuntza jarraitua eskainiko die ingurumen-ikuskatzaileei beren eginkizunak berezko dituzten gaien buruz.

2. Halaber, Nafarroako Ingurumenaren Institutuak prestakuntza emanen die ingurumena babestearen arloan ingurumen-ikuskapenak egiten dituzten langileei, institutuak berak eskaintzen dituen ikastaroen harantzago, eta prestakuntza-mota hori eta lana bateragarri egiteko neurriak ezarriko ditu, zerbitzuaren beharrek horretarako aukera ematen badu.

95. artikulua. Arau-garapena.

Nafarroako Gobernuak honako hauek zehaztuko ditu: Ikuskatzailetzara sartzeko gutxieneko prestakuntza, mugitu ahal izateko bete beharreko baldintzak, eta ingurumenaren arloko ikuskatzaileen eskubideak eta betebeharrak.

III. KAPITULUA

Ingurumen-ikuskapenerako planak eta ingurumen-ikuskapenak betearaztea

96. artikulua. Planen onspena.

1. Ingurumenaren zaintzaren, ikuskapenaren eta kontrolaren arloan eskuduna den administrazio bakoitzak urtero ingurumen-ikuskapeneko plan bat egiten du, eta hartan, gutxienez ere honako gai hauek jasoko ditu:

- Ikuskapen-kanpaina informatiboak.
- Ikuskapen-kanpaina zehatzaileak.
- Ikerketa-kanpainak.
- Ingurumenean esku-hartzeko jarduera dela-eta aurreikusitako ikuskapen eta kontrolak.
- Ingurumen-ikuskatzaileak garatu beharreko beste edozein motatako jarduketak.

2. Ingurumen-ikuskatzailetzako planen edukia erregelamenduz zehaztuko da; horren barne sartuko dira Europako legeriaren edo Estatuko oinarritzko legeriaren arabera aginduzkoak diren gaiak.

3. Lehenetsun berezia izanen dute ingurumenaren ikuspuntutik sentibera den eremu batekin edo, araudi indarduna aplikatuta, ingurumen-babes berezia duen eremu batekin zerikusia duten jarduerak kontrolatu, zaindu edo ikuskatzeko jarduketak guztiek.

4. Urte bakoitzaren amaieran, administrazio publiko bakoitzak txosten bat egingen du ikuskapen-plana betetzeari buruz; horri gehituko zaizkio, gainera, pertsona fisiko zein juridikoek edo beste administrazio batzuek salatutako egitateak egiaztatzeko egindako ikuskatzeen xehakatzeari, bai eta eginkizun horretan antzemandako zailtasun nagusiak ere.

5. Nafarroako Ingurumen Kontseiluak proposatu ahalko du, arrazoiak emanda, zenbait kanpaina sartzea kasuko ikuskapen-planetan; bestalde, aipatutako planen betetzeari buruzko urteko txostenen jakinarazpenak helaraziko zaizkio.

97. artikulua. Ingurumen-ikuskapenaren modalitateak.

1. Ikuskapen-jardueraren modalitate hauek egin ahal izanen dira:

a) Kontrolekoa, bai ofizioz, bai jasotako salaketan ondorioz. Halakoetan egiaztatuko da bete egiten direla legeria indardunean ezarritako ingurumeneko eginbehar eta betebeharrak. Ikuskapen-jarduketa baldin badator ingurumenerako arrisku aipagarri bat badagoela agertzen duen salaketa batetik edo ingurumen-araudiaren ez-betetze larri bat edo oso larri bat gertatuzetik, urgentziaz jardunen da.

b) Prebentziokoa, zeina zuzenduta egon behar diren kautela- eta arreta-neurriak hartzera eta ingurumenerako kalteak saihestera edo lehendik dauden kalteak ez larritzera.

c) Ikerketakoa, zeina erabiliko baita azterlanak egiteko eta ingurumen-izaerako arriskuak edo kalteak eragin ditzaketen sektore, artikulua eta jarduerak zehaztera.

d) Merkatuko eragileei aholku eta informazioa ematekoa. Halakoen bidez, erraztasunak emanen dira arauak ezagutu eta betetzeko eta ingurumen-jokabide onak zabaltzeko.

98. artikulua. Ikuskapen-jarduketak egikaritzea.

1. Ingurumen-ikuskatzaileek beren burua hala identifikatuko dute ikuskapen-eginkizunak betetzen ari direnean.

2. Ikuskapen lanak egiteko, ingurumen-ikuskatzaileek beste edozein agintaritzaren laguntza, esku-hartzea, sorospena eta babesa eskatu ahal izanen dituzte, halakorik behar badute, eta agintaritzak hark laguntza eman beharko die. Bereziki, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio eta gainerako administrazio publikoetako beste ikuskapen tekniko batzuekin lankidetzan jardun ahal izanen dute eta haien laguntza jaso ahal izanen dute beren eskumen eta eginkizunen eremuan.

3. Administrazio publikoen menpeko zerbitzu edo enpresetan, ikuskapenak haien organo eta agintarietara lotura funtzionalik gabe egingen dira, eta ikuskatzaileei eskatzen dituzten informazio guztiak eman beharko zaizkie.

4. Beren eginkizunetan ari direnean, ingurumen-ikuskatzaileek diskrezioz, zuhurtasunez eta gizabidez jokatu beharko dute. Ikuskapen-jardueran administrazioei begirunea izanen diete beti, neurri eta proportzioz jokatu beharko dute eta ikuskatuen lanbide jarduerak behar-beharrezkoa den heinean baino ez dute eragotziko. Betiere, lanbidez behartuta egon behar diren jarduerak eta ematen zaizkien informazioak erabat isilpean edukitzera.

99. artikulua. Ingurumen-ikuskapenaren ahalmenak.

1. Indarra duen legeriaren arabera ingurumen-ikuskatzaileek, beren eginkizunetan ari direnean, zilegi izanen dute:

a) Libreki sartzea, aurrez abisua eman gabe eta identifikatu ondoren, ikuskapenaren xede diren entitateen establezimendu, bulego eta instalazioetara, eta haietan egotea. Ikuskapen-eginkizunak betetzeko etxe batera sartu beharko balute, epaile baimena eskatu beharko lukete.

b) Ikuskatzen dituzten enpresetan, beharrezkotzat jotzen dutenean, industria, merkataritza eta kontabilitate gaietako informazioa eta agiriak eskuratzea, edozein dela ere horien euskarria, ingurumenaren babesari buruzko xedapenak betetzen ote diren begiratzeko, eta halaber, informazio eta agiri horiek eskatzea eta haien kopia lortzea. Ikuskatutakoek eskatutako dokumentazioaren konfidentziasuna aldarrikatu ahalko dute, industria prozesuei buruzko alderdiei eta konfidentziasuna legez aitortuta daukaten gainerako edozein alderdiri dagokienez.

c) Ingurumenaren ikuspuntutik garrantzitsutzat jotzen diren jardueraren edo instalazioaren atalen argazkiak egitea. Konfidentziasunez erabili beharko dira. Ikuskatutakoak ezezkoa eman ahalko die informazio sentibera nahiz teknologikoa duten makinen edo elementuen argazkiak egiteari.

d) Enpresetako arduradunen edo profesionalen agerraldia eskatzea bulego publikoetan.

e) Ondasun edo produktuen laginak hartzea, bai eta kontrolaren xede den jarduera industrial edo ekonomikoak eragindako isurketen eta hondakinen laginak ere. Administrazioak kalte-ordaina emanen du lagin gisa hartutako edo kontrolen ondorioz galdutako produktuengatik. Kalte-ordainaren zenbatekoa produktuen salmenta-balioa izanen da.

f) Behar diren kautela-neurriak hartzea araudi indardunean jasotako moduan.

g) Ingurumena babesteko arauak betetzen ote diren jakiteko beharrezkoa iruditzen zaien beste edozein ikerketa edo azterketa egitea.

2. Ahalmen horien baliatzea eragozte, geroratzea edo horretan edozein traba jartzea ikuskatze-eginkizunen oztopatze baten gisara eta ikuskatutako pertsonen laguntzeko betebeharra ez betetzearen gisara hartuko dira.

100. artikulua. Ikuskapeneko aktak.

1. Ingurumen-ikuskatzaileek beren jarduketa bakoitzaren akta egingen dute. Bertan ondokoak jasoko dituzte, betiere:

a) Ikuskatutako jardueraren titularra den pertsona fisiko edo juridikoaren identitatea.

b) Ikuskapena egin duen pertsonaren identifikazioa, eta ikuskapenean haiekin egon den pertsonarena. Pertsona hori zer dela-eta agertu den adieraziko da, eta ikuskatzaileek eskatutako agiriak aurkeztu dituela bere izaera frogatzeko.

c) Jarduketaren arrazioen adierazpena.

d) Hauteman diren egitateak, xehetasun bereziz zehaztuz arau-hauste administratiboa izan daitezkeena, kasuan kasuko inguruabar jakingarriak eta ikuskapenean egon direnek egin nahi izan dituzten oharrak.

e) Ikuskapenaren tokia, eguna eta ordua.

f) Jardun duen ikuskatzailearen edo jardun duten ikuskatzaileen eta haiekin egon den pertsonaren sinadurak. Pertsona horri sinatu aurretik jakinarazi behar zaio aktaren edukiari buruz oharrak egiten ahal dituela aktan jaso daitezen.

Pertsona horrek akta ez sinatzeak ez du akta hori baliogabe bihurtuko. Sinatzeari uko egiten badio, nahitaez sinatu behar duela jakinaraziko zaio, eta ohartaraziko zaio bisita egin dela jasorik uzteko helburu soilarekin sinatzen ahal duela, a), b) eta e) letretako datuak ontzat emateko bakar-bakarrik. Hori guztia aktan jasoko da.

2. Behar denean, honako hauek ere aktan jasoko dira:

a) Lagin-hartzeen, neurketaren, egiaztatzearen edo instalazio, produktu edo zerbitzuen gainean eginiko beste edozein kontrol motaren azalpena.

b) Agintaritzak agindu eta interesdunari eragiten dioten administrazio neurrien jakinarazpen pertsonala eta horiek ez betetzeak ekartzen ahal dituen ondorioei buruzko informazioa.

c) Erantsitako dokumentuen eta irudien zerrenda, zeinetan adieraziko baita zer aktarekin batera doazen. Hala eta guztiz ere, irudirik ez egoteak ez du eraginik izanen akten edukiaren egiazkotasunean.

3. Ikuskapenean egon den pertsonaren aurrean formalizatuko da akta, eta sinatu ondoren kopia bat emanen zaio. Aktaren kopia errefusatzeko bada, jasota utzi beharko da hori, bai eta horretarako arrazoiak ere, adierazi badira. Kasu horretan, aktaren kopia jardueraren titularrari igorriko zaio hurrengo hiru egunetan, egintza administratiboak jakinarazteko aurreikusita dauden baliabideen bitartez.

4. Ikuskatzaileek legezko baldintzak betez aktan jasotzen dituzten gertaerek froga-balioa izanen dute, indarra duen legerian xedatutakoaren arabera, deusetan ukatu gabe interesdunek beraiek beren eskubide edo interesen alde aurkezten ahal dituzten frogak.

101. artikulua. Ikuskapen txostenak.

Ikuskatzeak agindu dituen organoak edo kautela-neurriak hartzeko, zehapenak ezartzeko edo ingurumenaren arloko beste edozein neurri hartzeko eskuduna den organoak Ingurumen-ikuskatzailetzari eskatu ahalko dio ikuskapen-txostenak egin ditzan, akten osagarri izanzen direnak, eta haietan modu ulergarriak eta erabilgarriak deskriba ditzan antzemandako ebidentzia eta ikuskapenean zehar bildutako informazio guztiak, bai eta egindako ikuskapenaren konklusioak ere.

102. artikulua. Publizitatea.

1. Urte bakoitzaren azken hamabostaldian, jendearen eskueran jarri beharko dira eta argitaratu beharko dira hurrengo urteko ikuskapen-planak, ingurumenaren arloko informazioa eskuratzeari buruzko eskubidearen gaineko legeriak eta izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko legeriak ezarritakoez beste mugarik gabe.

2. Halaber, publikoak izanzen dira ikuskapen-aktak eta kontrol-, egiaztatze- eta ikuskapen-jarduketetatik datozen txostenak, aurreko apartatuan aipatutako muga berdinekin.

3. Halaber, publikoak izanzen da ikuskapen-planaren betetzeari buruzko txostena, foru lege honen 94.4 artikuluan aipatzen dena.

XI. TITULUA

Ingurumen-arloko legezkoatasuna babesteko eta leheneratzeko neurriak

I. KAPITULUA

Jarduerak legezkatzea

103. artikulua. Baimen edo lizentziarik gabeko jarduerak legezkatzea.

1. Ingurumen-organok jarduera bat aginduzkoa den ingurumen-baimen integraturik gabe ari dela jakiten duenean, jarduera eteteko agindua emanen du, hurrengo kapituluaren xedatutakoaren arabera eta, gainera, honako jardueraren bat ere burutuko du:

a) Jarduera legezkatzerik badago, jardueraren titularri egoera erregularizatzeko aginduko dio, kasuan-kasuan aplikatzeko den prozeduraren bidez, eta epe bat emanen dio prozedura horri ekiteko, behar bezala justifikatutako kasu berezietan izan ezik, hiru hilabete baino gehiagokoa izanzen ez den epea hain zuzen.

b) Jarduera baimentzerik ez badago, aplikatzeko zaion indarreko araudia urratzen duelako, behin betiko itxiko da, aurretiaz interesdunari entzunda.

2. Jarduera sailkatuaren lizentzia edukitzea eskatzekoa izan baina lizentzia hori eduki gabe garatutako jardueren kasuan, lizentzia emateko eskuduna den toki entitateak egiten ditu aurreko apartatuan aipatzen diren jarduketak.

3. Ingurumen-inpaktuaren adierazpenik edo txostenik gabe funtzionatzen duten proiektuen kasuan, halakoak eskatzekoak izan arren, ingurumen-organok organo substantiboari jardueraren funtzionamendua legezkatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko aginduko dio, jarduera ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren menpe jarritz eta, behar izanez gero, onespene edo baimen substantiboa berrikusiz.

4. Nolanahi ere, egiaztatutako egitateak arau-hauste administratibo bat baldin badira, zehapena ezarriko zaio haien erantzuleari.

II. KAPITULUA

Kautela- eta aseguramendu-neurriak

104. artikulua. Kautela-neurriak.

1. Agintaritza eskudunak berehala edo lehenbailehen hartuko ditu kautelazko edo prebentziozko neurri egokiak, ingurumena edo pertsonen osasuna edo segurtasuna arriskuan dagoela argi ikusten denean.

2. Neurri horiek Ingurumen-ikuskatzailetzak ere ezarri ahalko ditu behin-behinekoz, baldin eta ingurumenerako kalte larri edo atzeraezinen berehalako arriskua badago edo pertsonentzako edo ondasunetarako arriskua badago; hori, halere ez da eragozpena izanzen agintaritza eskudunak haiek berresteko edo kentzeko.

3. Entitate laguntzaile bat konturatzen denean aurreko apartatuan aipatutakoen ezaugarriak dituen arrisku bat badagoela, berehala eskatuko du Ingurumen-ikuskatzailetzaren laguntza neurri horiek behin-behinekoz ezartzeko.

4. Neurri horiek hartzen dituen ebazpena jakinarazteko egintzan edo neurri horiek berehala hartuko direla jasotzen duen ikuskapen-aktan interesdunari entzunaldia emateko gehieneko epe bat ezarriko da, bost egun baliodunekoa, eta agintaritza eskudunak hamar egun balioduneko epean eman beharko du horri buruzko ebazpena, entzunaldiaren epea amaitu ondoren kontaktzen hasita.

5. Kautela-neurriak hartzeaz gain, zehapen espedientea abian jarri ahal izanen da, ingurumenaren arloko arau-hausterik badago.

105. artikulua. Jardueren etetea.

Ingurumen-organoak edo, kasua bada, dagokion toki entitateak, prebentzio izaeraz eta beti interesdunei entzunaldia eman ondoren, ingurumenaren arloko esku-hartzearen menpeko edozein proiektu, instalazio edo jarduera gerarazteko agindu ahalko dute, eraikuntza-fasean nahiz ustiatze-fasean, guztiz nahiz partzialki, honako arrazoi hauetako edozein tarteko dela:

a) Plana, proiektua, instalazioa edo jarduera betearazten hasi delako ingurumen-baimen integratua, ingurumen-ondorioen adierazpena, ingurumen-inpaktuaren adierazpena edo jarduera sailkatuaren udal lizentzia edo erantzukizunpeko adierazpena eduki gabe.

b) Datuak ezkutatu, faltsutu edo maltzurki erabili direlako ingurumen-arloko esku-hartzea egiteko prozeduran.

c) Plana, proiektua, instalazioa edo jarduera betearazteko ezarritako ingurumen-baldintzak ez-betetzea edo haustea.

d) Ingurumenerako arrisku larria edo kalte aipagarria izatea.

106. artikulua. Berehalako etetea.

Kasuko txosten teknikoetan arrazoitutako eta oinarritutako moduan jasotzen denean ingurumenerako kalte larrien edo atzeraezinen arriskua edo pertsonentzako edo ondasunentzako berehalako arriskua badagoela, ingurumen-ikuskatzaitzak, ingurumen-organoak edo, kasua bada, toki entitateak edo organo substantiboak berehala geraraziko dute jardueraren garapena edo egikaritzea, arrisku hura determinatu duten inguruabarrak desagertzen ez diren arte, eta behar diren neurriak hartu ahalko dituzte aipatutako arriskuak egiaztatzeko edo gutxitzeko.

107. artikulua. Kautelazko beste neurri batzuk.

Aurreko artikuluetan jasotako jardueren, instalazioen edo obren eteteaz gainera, beharrezko diren kautela-neurriak ezarri ahalko dira; honako hauek izan ahalko dira, besteak beste:

a) Instalazio bat ixtea edo jarduera bat guztiz nahiz partzialki geraraztea.

b) Produktuak ez mugitzeko agindua.

c) Produktuak merkatutik erretiratzea.

d) Aparatu zein ekipoak prezintatzea.

e) Kasuaren inguruabarren arabera beharrezkoa den beste edozein neurri.

108. artikulua. Kautela-neurrien proportzionaltasuna.

1. Kautela-neurriak atzemandako irregulartasunaren eta arrisku edo kaltearen proportziokoak izanen dira, eta ahal den gutxiena iraunen dute: behar diren kontrol eta egiaztapenak zentro kualifikatuetan egin arte, edo interesdunek arazoa konpondu edo arriskua erabat ezabatu arte soilik. Neurria hartzeko agindu zuen agintaritzak arazoa konponduta dagoela egiaztatu beharko du.

109. artikulua. Aseguramendu-neurriak

Ingurumen-legeria sektorialean xedatutakoa gorabehera, foru lege honetan aurreikusitako ingurumen-baimenak edo jarduera sailkatuaren lizentzia ematerakoan, hura ematen duen organoak baldintza gisa ezarri ahalko du, behar bezala arrazoituta, jardueraren titularrak fidantza bat jartzea edo erantzukizuneko derrigorrezko aseguru bat egitea, baimendutako jarduerak edo instalazioak eragin litzakeen kalteak konpondu edo gutxituko dituen.

III. KAPITULUA

Ingurumen-arloko legezketasuna leheneratzeko neurriak, neurri zuzentzaileak eta aldarazitako errealitate fisikoa berrezartzeko eta kalte-ordainak emateko betebeharra

110. artikulua. Ingurumen-arloko legezketasuna leheneratzeko neurriak.

1. Ingurumen-arloko legezketasuna leheneratzeko, administrazio publiko eskudunak titulu honetan jasotako neurriak edo beharrezkoak izan daitezkeen gainerakoak hartu ahalko ditu; besteak beste, erabaki ahalko du ur-horniduraren edo energia elektrikoaren etetea, zeina hurrengo artikuluan arautzen baita.

2. Administrazio publiko jarduleek jardueren titularrei ezarritako neurrien eragingarritasuna bermatuko duen fidantza eskatu ahalko diete; horien baldintzak erregelamenduz ezarriko dira.

111. artikulua. Horniduren etetea.

1. Administrazio publiko jarduleak eragotziko du eteteko edo ixteko agindu diren jardueren, instalazioen edo obraren ur-hornidura edo energia elektrikoaren hornidura; bestela, hornidura horiek etenen ditu.

2. Horretarako, jardueraren, instalazioaren edo obraren titularrari eta ura edo elektrizitatea banatzen duten enpresei administrazioaren ebazpena jakinaraziko zaie, eta enpresek agindu hori gehienez ere bost eguneko epean bete beharko dute.

3. Jakinarazpenean, hornidurak beste enpresa batzuekin kontratatzeko debekua ezarriko da, bai eta hornitzaileek Administrazioari beste enpresa hornitzaile batekin kontratatzeko balizko eskaerari buruz dagoen edozein informazio jakinarazteko eginbeharra ere.

4. Uraren edo energia elektrikoaren horniduraren etenari amaiera emateko lehenik eta behin instalazioa edo jarduera legezlatu beharko da, edo neurri zuzentzaileak hartu, Administrazio Publikoa jarduleak enpresa hornitzaileei eta jardueraren titularrari hala gertatu dela espresuki jakinarazita.

112. artikulua. Neurri zuzentzaileak ezartzea.

1. Ingurumen-baimen integratuaren edo ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren menpe dagoen jarduera baten funtzionamenduan akatsik hauteman ondoren, ingurumen-organoak jarduera horren titularrari akats horiek neurri zuzentzailearen arabera epean zuzen ditzan aginduko dio. Epe hori, behar bezala justifikatutako kasu berezietan ez bada, ez da sei hilabete baino gehiagokoa izanen.

2. Jarduera sailkatuen kasuan, toki entitateari dagokio akatsak zuzentzeko agindua ematea, aurreko apartatuan esandako moduan.

3. Aipatutako ez-betetzeak arau-hauste administratiboa badira hasi beharko den zehapen-prozeduran astungarritzat hartu ahalko da neurri zuzentzaile horiek hartzea.

4. Ingurumen-baimen integratua adierazitakoez beste neurri zuzentzaile edo kontroleko elementu batzuk – sentsoreak, neurketa jarraituko sistemak edo beste batzuk– instalatzea aringarritzat hartu ahalko da zehapena gutxitzeko orduan, baldin eta arau-hauste administratibo bat badago; horretarako, betiere, dagokion sektoreko BREF dokumentuan adierazitakoaren hobekuntza bat ekarri beharko du instalazio horrek.

113. artikulua. Aldarazitako errealitate fisikoa berrezartzeko eta eragindako kalteen ordaina emateko betebeharra.

1. Planaren edo proiektuaren edo jardueraren egikaritzeak ingurumenari kalte egiten diotenean edo errealitate fisikoan edo biologikoan baimendu gabeko aldaketa eragiten dutenean, sustatzaileak zein titularrak aldarazitako errealitate fisiko edo biologikoa berrezarri beharko dute, edo, hori ezinezkoa bada, horren pareko ondorioak dituzten konpentsazio-neurriak gauzatuko dituzte eta, izatekotan, legokiekeen kalte-ordaina ordainduko lukete, ingurumenari eragindako kalte eta galerengatik, kasuan-kasuan bidezkoak liratekeen zigor zein administrazio zehapenen kalterik gabe.

2. Aldarazitako errealitate fisiko edo biologikoa atzera ekartzeko edo horren pareko ondorioak dituzten konpentsazio-neurriak gauzatzeko modua eta beharrezko jarduerak zehaztuko ditu ingurumen-organoak, eragiketak hasi eta amaitzeko epeak finkatuz eta, behar izanez gero, legokeen kalte-ordaina emateko epea zehaztuz.

3. Artikulu honek hizpide dituen berrezartzeko eta kalte-ordainak emateko betebeharren zehaztapena egin ahalko da jarduerak legezlatzeko, zehapen prozeduran zein erregelamenduz finkatzen den berariazko prozeduraren bidez. Zehaztapen hori kalteak eragiten direnetik hamabost eguneko epean egin ahalko da, kalteek jabari publikoko ondasunak edo babes bereziko eremuak ukitzen dituztenean izan ezik, halakoetan akzioa preskribaezina izanen baita.

4. Jarduera sailkatuaren lizentzia behar duten jardueren kasuan, berrezartzeko eskakizuna edo, kasua bada, kalte-ordainaren eskakizuna lizentzia eman duen toki entitateari dagokio.

5. Neurri horiek ez badira betetzen, administrazio eskudunak foru lege honen IX. tituluaren aurreikusitako neurriak ezarri ahalko ditu.

XII. TITULUA **Arau-hauste eta zehapenak**

I. KAPITULUA **Arau-hauste eta zehapenak**

114. artikulua. Arau-hausteen subjektu erantzuleak.

1. Arau-hauste administratiboak diren egitateengatik zehapenak ezarri ahalko zaizkie foru lege honetan arau-hauste gisa tipifikatutako jokabideak dauzkatenei edo jokabide horietan parte hartzen dutenei.

2. Legezko betebeharrak bat betetzea pertsona bati baino gehiagori badagokio, solidarioki erantzun beharko dute egiten dituzten arau-hausteengatik eta ezartzen zaizkien zehapenengatik.

3. Pertsona fisiko edo juridiko arau-hauste bakar batek arau-hauste bat baino gehiago egin izana ondorioztatzeko moduko egintza bat baino gehiago egin baditu, zenbat arau-hauste egin dituen, horrenbeste zehapen ezarriko zaizkio.

4. Baldin eta egitate berdinean jakin batzuek arau-hauste bat baino gehiago egin badezakete, arau-hauste astunenari dagokion zehapena, goiko erdian, ezarriko da.

5. Baldin eta egitate batzuek arau-haustetzat hartzen badira arau-haustetzat hartzen diren beste batzuek egiteko tresna edo baliabide izan direlako, eta, horrenbestez, batzuek besteari ezinbesteko ondorio direnean, arau-hauste astunenari dagokion zehapena, goiko erdian, ezarriko da.

1. atala

Kutsaduraren prebentzioa eta kontrol integratuen eta ingurumen-ebaluazioaren arloko arau-hausteak eta zehapenak.

115. artikulua. Kutsaduraren prebentzioa eta kontrol integratuen arloko arau-hausteak eta zehapenak.

Kutsaduraren prebentzioa eta kontrol integratuen arloko arau-hausteak dira gai honi buruzko berariazko araudian halakotzat aurreikusita daudenak, eta ezarri beharreko zehapenak, halaber, araudi horretan ezarritakoak izanen dira.

116. artikulua. Ingurumen-ebaluazioaren arloko arau-hausteak eta zehapenak.

Ingurumen-ebaluazioaren arloko arau-hausteak dira ingurumen-ebaluazioari buruzko araudi indardunean halakotzat aurreikusita daudenak.

Ezarri ahalko diren zehapenak aipatutako araudian ezarritakoak izanen dira.

2. atala

Ingurumen-baimen integratuaren menpeko jardueren arloko arau-hausteak eta zehapenak

117. artikulua. Ingurumen-baimen integratuaren menpeko jarduerak.

1. Hauek dira arau-hauste oso astunak:

a) Jarduera batean aritzea edo haren edo instalazioen funtsezko aldaketa bat egitea aginduzkoa den ingurumen-baimen integratua eduki gabe, baldin eta ingurumenari kalte edo narriadura larri bat eragin bazaio edo pertsonen segurtasuna edo osasuna arrisku larrian jarri bada.

2. Hauek dira arau-hauste astunak:

a) Jarduera batean aritzea edo instalazioaren zein jardueraren funtsezko aldaketa bat egitea aginduzkoa den ingurumen-baimen integratua eduki gabe, baldin eta ingurumenari kalte edo narriadura larri bat eragin ez bazaio edo pertsonen segurtasuna edo osasuna arrisku larrian jarri ez bada, eta abian jartzeari buruzko dagokion erantzukizunpeko adierazpenik eduki gabe.

b) Ingurumen-baimen integratua behar duen instalazio edo jarduera bat abian jartzea, abian jartzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpenik eduki gabe edo behar diren gainerako baimen zehatzak eduki gabe, halakoak aurkezteko behar dena justifikatzeko modurik ez dagoenean.

c) Ingurumen-baimen integratua ezarritako baldintzak ez betetzea, baldin eta ingurumenari kalte edo narriadura larri bat eragin bazaio edo pertsonen segurtasuna edo osasuna arrisku larrian jarri bada.

d) Ingurumen-organoari ez komunikatzea instalazioan egin diren aldaketak, baldin eta aldaketa horiek funtsezkoak badira.

e) Ezarritako behin-behineko neurrietatik eta kautela-neurrietatik datozen eginbeharrak ez betetzea, baldin eta, gainera, arau-hauste administratibo bat badago.

f) Ingurumen-organoari berehala aditzera ez ematea ingurumen-baimen integratuaren baldintzen edozein ez-betetze, ez eta ingurumenean eragin adierazgarria duten gorabeherak edo istripuak ere.

g) Jarduera bat egikaritzea babeserako arau gehigarrietan ezarritako eginbeharrak bete gabe, jakinarazpenaren eta erregistroaren betekizuna ezarri denean, baldin eta ingurumenari kalte edo narriadura bat eragin bazaio edo pertsonen segurtasuna edo osasuna arriskuan jarri bada.

h) Instalazio bat behin betiko ixtea, ingurumen-baimen integratuan ezarritako baldintzak bete gabe.

3. Hauek dira arau-hauste arinak:

a) Ingurumen-baimen integratuan ezarritako baldintzak ez betetzea, baldin eta ingurumenari kalte edo narriadura larri bat eragin ez bazaio edo pertsonen segurtasuna edo osasuna arrisku larrian jarri ez bada, eta behar diren neurriak ez hartzea baldintza horien betetzea ahal den epe laburrean berriz ere segurtatuta egoteko.

b) Ingurumen-organoari ez komunikatzea instalazioan egin diren aldaketak, baldin eta aldaketa horiek funtsezkoak ez badira.

c) Justifikaziorik gabe geroratzea abian jartzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena edo Administrazioak bere ikuskapen- eta kontrol-eginkizunak egikaritzeko eskatutako dokumentuak aurkezten.

d) Jarduera bat egikaritzea babeserako arau gehigarrietan ezarritako eginbeharrak bete gabe, jakinarazpenaren eta erregistroaren betekizuna ezarri denean, baldin eta ingurumenari kalte edo narriadurarik eragin ez bazaio edo pertsonen segurtasuna edo osasuna arriskuan jarri ez bada.

e) Ezarritako behin-behineko neurrietatik eta kautela-neurrietatik datozen eginbeharrak ez betetzea, baldin eta arau-hauste administratiborik ez badago.

f) Foru lege honetan zein haren arabera onetsitako arauetan agindutakoen ez-betetzea, arau-hauste oso astun zein astuntzat joko da, tipifikatuta ez badaude .

118. artikulua. Ingurumen-baimen integratuaren menpe dauden jardueretarako zehapenak.

Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-hausteez honako zehapen hauek guztiak edo haietako batzuk ezartzea ekarriko dute:

1) Arau-hauste oso astunaren kasuan:

a) 240.001 eurotik 2.404.000 eurorainoko isuna.

b) Instalazioak behin betiko, erabat edo partzialki ixtea.

c) Instalazioak aldi batez, erabat edo partzialki ixtea, bi urtetik bost urtera bitarteko epe baterako.

d) Jardueran aritzeko desgaitzea, urtebetetik bi urtera bitarteko aldi baterako.

e) Baimena errebokatzea edo etetea, urtebetetik bost urtera bitarteko aldi baterako.

f) Argitaratzea, egokitzea jotzen diren bideak erabiliz, ezarritako zehapenak, behin horiek bide administratiboan irimo bilakatu direnean, edo, kasua bada, bide juridikzionalen; halaber, erantzule diren pertsona fisiko edo juridikoen izen-deiturak edo sozietatearen izena edo helbidea argitaratzea, bai eta kasuko arau-haustearen mota eta izaera ere.

2) Arau-hauste astunaren kasuan:

a) 24.001 eurotik 240.400 eurorainoko isuna.

b) Instalazioak aldi batez, erabat edo partzialki ixtea, gehienez ere bi urtez.

c) Jardueran aritzeko desgaitzea, gehienez ere urtebetez.

d) Baimena errebokatzea edo hura etetea, gehienez ere urtebetez .

e) Ingurumen-baimen integratuaren baldintzak bete daitezkeen segurtatzeko eta balizko beste gorabehera edo istripu batzuk saihesteko organo eskudunak beharrezkotzat jotzen dituen neurri osagarriak hartzeko eginbeharra ezartzea titularrari.

3) Arau-hauste arinaren kasuan:

a) 24.000 eurorainoko isuna.

b) Instalazioak aldi batez, erabat edo partzialki ixtea, gehienez sei hilabetez.

3. atala **Jarduera sailkatuaren lizentziaren arloko** **arau-hauste eta zehapenak**

119. artikulua. Jarduera sailkatuaren lizentzia behar duten jardueren arau-haustek.

1. Arau-hauste oso astuna da aginduzkoa den jarduera sailkatuaren udal lizentziarik gabe ezartzea, ustiatzea, lekuz aldatzea edo aldaketa funtsezkoak egitea obretan, jardueretan edo proiektu baten gauzatzean, betiere ingurumenari kalte edo narriadura larria eragiten bazaio.

2. Hauek dira arau-hauste astunak:

a) Obrak, jarduerak edo proiektu baten gauzatzea ezartzea, ustiatzea, lekuz aldatzea edo funtsean aldatzea aginduzkoa den jarduera sailkatuaren proiektua eduki gabe, ingurumenen kalte edo narriadura arina eraginda.

b) Jarduera sailkatuaren lizentzia behar duten jarduerak abian jartzea, abian jartzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izateko baldintzak bete gabe.

c) Jarduera sailkatuaren lizentzian ezarritako ingurumen-baldintzak ez betetzea, ingurumenari kalte edo narriadura eragin zaionean edo pertsonen segurtasuna edo osasuna arriskuan jarri bada.

d) Etete- edo ixte-aginduak edo ezarritako neurri zuzentzaile osagarriak edo babes-neurriak ez betetzea.

e) Jarduera sailkatua emateko prozeduran datuak faltsutzea, ezkutatzea edo maltzurki manipulatzeko.

f) Ikuskatze- edo kontrol-jarduera eragozte, atzeratzea edo beste edozein motatako oztopatzea; zehazki, instalaziora sartzea eragozte.

3. Hauek dira arau-hauste arinak:

a) Jarduera sailkatuaren lizentziaren titulartasuna eskualdatzea hura eman zuen toki entitateari komunikatu gabe.

b) Jarduera sailkatuaren lizentzian ezarritako eginbeharretatik edozein ez betetzea, ingurumenari kalte edo narriadura eragin ez zaionean eta pertsonen segurtasuna edo osasuna arriskuan jarri ez bada.

c) Abian jartzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena ez aurkeztea.

120. artikulua. Jarduera sailkatuaren lizentzia behar duten jardueretarako zehapenak.

Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-hausteez honako zehapen hauek guztiak edo haietako batzuk ezartzea ekarriko dute:

1. Arau-hauste oso astunaren kasuan:

a) 15.000 eurotik 30.000 eurorainoko isuna.

b) Instalazioak behin betiko, erabat edo partzialki ixtea.

c) Instalazioak aldi batez, erabat edo partzialki ixtea, urtebetetik hiru urtera bitarteko aldi baterako.

d) Jardueran aritzeko desgaitzea, urtebetetik bi urtera bitarteko aldi baterako.

e) Lizentzia errebokatzea edo etetea, urtebetetik hiru urtera bitarteko aldi baterako.

2. Arau-hauste astunaren kasuan:

a) 3.000 eurotik 15.000 eurorainoko isuna.

b) Instalazioak aldi batez, erabat edo partzialki ixtea, gehienez ere urtebetez.

c) Jardueran aritzeko desgaitzea, gehienez ere urtebetez.

d) Lizentzia errebokatzea edo etetea, gehienez ere urtebetez.

3. Arau-hauste arinaren kasuan:

– 3.000 eurorainoko isuna.

– Instalazioak aldi batez, erabat edo partzialki ixtea, gehienez sei hilabetez.

4. atala

Erantzukizunpeko adierazpenarekin lotutako arau-hauste eta zehapenak

121. artikulua. Arau-hausteak.

1. Arau-hauste administratibo oso astuna da jarduera bat hasi baino lehen erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko eginbeharra ez betetzea, adierazpen hori aginduzkoa den kasuetan, baldin eta hura aurkezteko behar diren baldintzak betetzen ez badira eta ingurumenari kaltea eragiten bazaio.

2. Honako hau arau-hauste administratibo astuna izanen da:

a) Jarduera bat hasi baino lehen erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko eginbeharra ez betetzea, adierazpen hori aginduzkoa den kasuetan, baldin eta hura aurkezteko behar diren baldintzak betetzen ez badira.

b) Administrazio eskudunak ez kontrolatzea erantzukizunpeko adierazpena behar duen jarduera bat zein baldintzatan garatzen ari den, jarduera hasi dela jakin denetik hurrengo 6 hilabeteetan.

3. Honako hau arau-hauste administratibo arina izanen da:

c) Erantzukizunpeko adierazpena ez aurkeztea, aginduzkoa denean, baldin eta hura aurkezteko baldintzak betetzen badira.

d) Erantzukizunpeko adierazpenean egia ez esatea, eta erantzukizunpeko adierazpena bermatzeko txostenetan, halakorik badago, egileek datuak faltsutzea.

122. artikulua. Erantzukizunpeko adierazpenarekin lotutako arau-hausteen zehapenak.

Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-hausteez honako zehapen hauek guztiak edo haietako batzuk ezartzea ekarriko dute:

1. Arau-hauste oso astunaren kasuan:

a) 15.000 eurotik 30.000 eurorainoko isuna.

b) Instalazioak behin betiko, erabat edo partzialki ixtea.

c) Instalazioak aldi batez, erabat edo partzialki ixtea, urtebetetik hiru urtera bitarteko aldi baterako.

d) Jardueran aritzeko desgaitzea, urtebetetik bi urtera bitarteko aldi baterako.

e) Lizentzia errebokatzea edo etetea, urtebetetik hiru urtera bitarteko aldi baterako.

2. Arau-hauste astunaren kasuan:

a) 3.000 eurotik 15.000 eurorainoko isuna.

b) Instalazioak aldi batez, erabat edo partzialki ixtea, gehienez ere urtebetez.

c) Jardueran aritzeko desgaitzea, gehienez ere urtebetez.

d) Lizentzia errebokatzea edo etetea, gehienez ere urtebetez.

3. Arau-hauste arinaren kasuan:

– 3.000 eurorainoko isuna.

– Instalazioak aldi batez, erabat edo partzialki ixtea, gehienez sei hilabetez.

5. atala

Bestelako arau-hauste eta zehapenak

123. artikulua. Arau-hausteak.

1. Honako hauek ere arau-hauste administratibo oso astunak dira:

a) Ingurumena kontserbatzeko foru funtsean ez sartzea hartara bideratuta dauden baliabideak, edo funts horretako zenbatekoak erabiltzea foru lege honetan aurreikusitakoez beste jarduketa batzuetarako.

b) Foru lege honetan araututako ingurumen-arloko esku-hartzerako prozedurak hasteko eskariaren kopia ez igortzea, ez eta eskaerarekin batera doan dokumentazioa ere, beste autonomia-erkidego batean edo Europar Batasuneko kidea den estatu batean ingurumen-eraginak izan zitzakeela ezagutzen zen plan, programa, proiektu, jarduera edo instalazio bati dagokionez, edo horri buruzko ebazpena edo behin betiko txostena ez igortzea, beste autonomia-erkidego batean edo beste estatu batean ingurumenerako kalte larriak gertatzen direnean.

c) Aldarazitako ingurumena edo legezkotasuna dela-eta edozein motatako kautela-neurri, aseguramendu-neurri, neurri zuzentzaile, leheneratze-neurri edo berrezartze-neurriak agintzen dituzten ebazpen administratiboak ez betetzea.

d) Enpresa hornitzaileek ez betetzea aurrez jakinarazitako eginbeharra, instalazio edo jarduera jakin baten hornidura eteteko, eta etetearen xede izan diren hornidura horiek berak beste enpresa batzuekin kontratatzeko ahalegina, haren berri izan denean, ez jakinaraztea.

e) Hornidurak beste enpresa hornitzaile batzuekin kontratatzeko debekua ez betetzea.

f) Urtebetean bi arau-hauste astunetan berrerortzea.

2. Honako hauek ere arau-hauste administratibo astunak dira:

a) Ingurumenean esku-hartzeko prozedurei hasiera emateko eskaerarekin batera aurkezten diren txosten teknikoak edo prozedura horri gehitzen zaizkien izenpetzea esku hartzeko aipatutako prozeduren emaitzan eragin nabarmena izan dezaketen datuak nahita faltsutuz, eta prozedura sustatzen duen pertsonak haiek hasiera emateko eskaeran jasotzea.

b) Aldeko txosten bat edo baimen bat ematea kasu bakoitzean eskuduna den Administrazioak jarduera bat aurrera eraman ahal izateko, espediente administratiboan dagoen dokumentaziotik modu argian ondorioztatzen denean horretarako ingurumen-baldintzak ez direla bete.

c) Ingurumenean esku hartzeko prozeduran esku hartzen duen edozein organo substantibok aldeko txostenak ematea, espediente administratiboan dagoen informaziotik edo aurrera eraman diren jarduketetatik argi ondorioztatzen denean aldeko txostena emateko baldintzak ez direla betetzen.

e) Kasuko Administrazioak ezezkoa ematea prozedura batean interesdun guztien eskura edo herritar guztien eskura egon behar duen ingurumen-izaerako informazioa irispidean jartzeari edo emateari, edo ezezkoa ematea informazioa emateari dibertsitate funtzionala duen pertsonak eskatutako formatuan, betiere daukan desgaitasuna dela-eta formatu horretarako arrazoiak badaude.

f) Ez betetzea hitzarmen bidez boluntarioki hartutako konpromiso batzuk, onartutako kontrol boluntarioak edo erantzunkidetasuneko nahiz ingurumenaren alde lankidetzan jarduteko beste edozein tresna.

g) Ingurumena hobetzeko akordio boluntarioen edo kontrol boluntarioen menpean jartzeari buruzko publizitatea egitea, edo ingurumen-kalitatearen bereizgarria erabiltzea horretarako baldintzak bete gabe eta Administrazioak jada jarduketa horri amaiera emateko errekerimendua egin ondoren.

k) Foru lege honetan araututako ingurumen-arloko esku-hartzerako prozedurak hasteko eskariaren kopia ez igortzea, ez eta eskaerarekin batera doan dokumentazioa ere, beste autonomia-erkidego batean edo Europar Batasuneko kidea den estatu batean ingurumen-eraginak izan zitzakeen plan, programa, proiektu, jarduera edo instalazio bati dagokionez, edo horri buruzko ebazpena edo behin betiko txostena ez igortzea, beste autonomia-erkidego batean edo Europar Batasuneko kidea den beste estatu batean ingurumenerako kalte arin bat eragin denean.

j) Aginduzkoa denean, foru lurraldean ingurumen-eragin aipagarriak izan ditzakeen plan, programa, proiektu edo instalazio bat beste autonomia-erkidego batean garatzearen jarraipena egiteko behar den informazioaren errekerimendua ez egitea, eta behar diren neurriak ez hartzea afekzio ahal den txikiena bermatzeko, lurralde horretan kalte aipagarriak gertatu direnean.

l) Ingurumena kontserbatzeko foru funtsean ez jasotzea zenbateko horiek zertarako erabiliko diren.

m) Foru lege honetan araututako prozeduren eta tresnen arabera eskatutako informazioa ezkatutzea, aldaraztea edo faltsutzea.

n) Ingurumen-ikuskatzaitzaren edo entitate laguntzaileen zaintza, ikuskapen- edo kontrol-jarduerarako eragozpenak, atzerapenak edo beste edozein motatako oztopoak jartzea; zehazki, instalaziora sartzea eragozte.

ñ) Ingurumen-ikuskatzaitzari eskuratutako informazioa edo dokumentuak faltsutzea edo haietan egia ez esatea.

o) Ordezko ingurumen-prestazioa ez betetzea, eta zehapen horrekin zehatutako pertsonak hura egin izanari buruzko komunikazioa egitea, egiazki egin ez badu.

p) Urtebetean bi arau-hauste arinetan berrerortzea.

3. Honako hauek dira arau-hauste administratibo arinak:

a) Ingurumen-baimen integratuan, ingurumen-afekzioen baimenean edo jarduera sailkatuaren udal lizentzian finkatutako ingurumen baldintzen ez-betetze arina.

b) Ingurumen-inpaktuaren adierazpenean finkatutako ingurumen baldintzen eta Zaintza Programaren ez-betetze arina.

c) Ingurumenean esku-hartzeko prozedurei hasiera emateko eskaerekin batera aurkezten diren txosten teknikoak edo prozedura horiei gehitzen zaizkienak izenpetzea datu okerrekin edo gaurkotuta ez daudenean, halakoek esku hartzeko aipatutako prozeduren emaitzan eragin nabarmena izan dezaketenean, eta prozedura sustatzen duen pertsonak haiek hasiera emateko eskaeran jasotzea.

d) Administrazio eskudunak ez kontrolatzea erantzukizunpeko adierazpena behar duen jarduera bat zein baldintzatan garatzen ari den, jarduera hasi dela jakin denetik hurrengo hiru hilabeteetan.

e) Foru lege honetan bere aplikazio eremuaren menpean baimendutako jarduera eta proiektuen gainean finkatutako komunikazio, jakinarazpen eta informazio betebeharren ez-betetze arina.

f) Kasuko administrazioak edozein oztopo, traba edo atzerapen justifikatu gabea ezartzea prozedura batean interesdunen eskura edo herritar guztien eskura egon behar duen ingurumen-izaerako informazioa irispidean jartzerakoan edo ematerakoan.

g) Dagokion administrazio publikoak ez betetzea herritarren ingurumen-arloko parte-hartzeari buruzko eginbeharrak, foru lege honetan eta gai honi buruzko parte-hartzeari buruzko gainerako araudian jasota daudenak.

h) Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakundeek aholkua eta laguntza emateko eginbeharrak ez betetzea.

i) Kontsultak, erantzunak eta nahitaezkoa den gainerako informazioa Nafarroako Ingurumen Informazioaren Sarean argitaratzeko eginberrak ez betetzea, edo kasuko informazioa ez bidaltzea, sare horretan argitara dadin.

j) Ez betetzea hitzarmen bidez boluntarioki hartutako konpromisoren bat, onartutako kontrol boluntarioen bat edo erantzunkidetasuneko nahiz ingurumenaren alde lankidetzan jarduteko beste edozein tresna.

k) Administrazioari ez komunikatzea akordio edo kontrol boluntarioen edo ingurumen-kalitatearen bereizgarriaren erregistroetan mantentzeko baldintzak betetzeari utzi zaiola.

l) Ingurumena hobetzeko akordio boluntarioen edo kontrol boluntarioen menpean jartzeari buruzko publizitatea egitea, publizitate horretan jasotako informazioa egia ez denean, edo ingurumen-kalitatearen bereizgarria erabiltzea horretarako baldintzak bete gabe.

m) Ezezkia ematea beste administrazio publiko batekiko lankidetzari, aginduzkoa denari, administrazio horrek errekerimendu frogagarria egin ondoren.

n) Foru lege honetan araututako ingurumen-arloko esku-hartzerako prozedurak hasteko eskariaren kopia ez igortzea, ez eta eskaerarekin batera doan dokumentazioa ere, beste autonomia-erkidego batean edo Europar Batasuneko kidea den estatu batean ingurumen-eraginak izan zitzakeen plan, programa, proiektu, jarduera edo instalazio bati dagokionez, edo haiei horri buruzko ebazpena edo behin betiko txostena ez igortzea, beste autonomia-erkidego batean edo Europar Batasuneko kidea den beste estatu batean ingurumenerako kalterik eragin ez denean.

ñ) Foru lurraldean ingurumen-eragin aipagarriak izan ditzakeen plan, programa, proiektu edo instalazio bat beste autonomia-erkidego batean garatzearen jarraipena egiteko behar den informazioaren errekerimendua ez egitea, eta behar diren neurriak ez hartzea afekzio ahal den txikiena bermatzeko, lurralde horretan kalte aipagarriak gertatu ez direnean.

o) Foru lege honetan zein hura garatzeko arauetan ezarritako gainerako betebeharren ez-betetzea, arau-hauste astun zein oso astuntzat tipifikatuta ez badaude.

p) Ezezkoa ematea zaintza-, kontrol- eta ikuskapen-lanak errazteari Ingurumen-ikuskatzailetzari edo entitate laguntzaileei, edo lan horiek oztopatzea edo haietarako edozein traba jartzea.

q) Ingurumen-ikuskatzailetzak edo entitate laguntzaileek eskatutako dokumentazioa emateari, laginak hartzeari edo jarduera baten garapenaren bertatik bertarako ikuskatze zuzenari ezezkoa ematea.

r) Kautela-neurriak, neurri zuzentzaileak edo errealitate fisikoa nahiz aldarazitako ingurumen-legeria berrezartzeko neurriak oztopatzea.

124. artikulua. Arau-hauste hauei dagozkien zehapenak.

Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-hausteez honako zehapen hauek guztiak edo haietako batzuk ezartzea ekarriko dute:

1. Arau-hauste oso astunen kasuan:

a) 120.001 eurotik 1.200.000 eurorainoko isuna.

b) Instalazioak behin betiko, erabat edo partzialki ixtea.

c) Instalazioak aldi batez, erabat edo partzialki ixtea, urtebetetik 3 urtera bitarteko epe baterako.

d) Jardueran aritzeko desgaitzea, urtebetetik bi urtera bitarteko aldi baterako.

e) Baimena errebokatzeko edo etetea, urtebetetik 3 urtera bitarteko aldi baterako.

f) Ezarritako zehapenak argitaratzea, behin horiek bide administratiboan edo, kasua bada, bide juridikzionaletan irimo bilakatu direnean; halaber, erantzule diren pertsona fisiko edo juridikoen izen-deiturak edo sozietatearen izena edo helbidea argitaratzea, bai eta kasuko arau-haustearen mota eta izaera ere.

2. Arau-hauste astunen kasuan:

a) 12.000 eurotik 120.000 eurorainoko isuna.

b) Instalazioak aldi batez, erabat edo partzialki ixtea, gehienez ere urtebetez.

c) Jardueran aritzeko desgaitzea, gehienez ere urtebetez.

d) Lizentzia errebokatzeko edo etetea, gehienez ere urtebetez.

3. Arau-hauste arinen kasuan:

a) 12.000 eurorainoko isuna.

b) Instalazioak aldi batez, erabat edo partzialki ixtea, gehienez ere sei hilabetez.

6. atala

Arau-hauste eta zehapenetarako xedapen amankomunak

125. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.

1. Arau-hausteez honako epe hauetan preskribatuko dira:

a) Arau-hauste oso astunak 4 urteren buruan.

b) Arau-hauste astunak 3 urteren buruan.

c) Arau-hauste arinak urtebeteren buruan.

2. Arau-hausteen preskribatze-epea zenbatzen hasiko da arau-haustea egin den egunetik. Arau-hauste jarraitu edo etengabeen kasuan, berriz, jokabide arau-hauslea bukatzearekin batera hasiko da epea zenbatzen, kasua bada.

3. Arau-haustearen preskribatzea geraraziko da egiaztatutako egitateak Ministerio Fiskalari helarazi zaizkionean, delitua edo falta izan badaitezke ere, helarazte hori erabakitzen duen ebazpenaren datatik kontatzen hasita, eta epe hori berriz kontatzen hasiko da zigor-izaera duten jarduketan artxibatzea jakinarazten denean.

4. Zehapenak ondorengo epeetan preskribatuko dira, eta epe horiek hasiko dira kontatzen zehapena ezartzen duen ebazpena irmo bilakatu eta biharamunetik hasita:

- a) Zehapen oso astunak 4 urteren buruan.
- b) Zehapen astunak 3 urteren buruan.
- c) Zehapen arinak urtebeteren buruan.

126. artikulua. Zehapenen kuantifikazioa.

1. Zehapenak jartzeko orduan arau-haustearen larritasunaren eta erabakitako zehapenaren arteko beharrezko egokitasuna zainduko da, eta honako irizpideei bereziki adituko zaie zehapenaren graduazioa finkatzeko:

- a) Arau-haustea egiteko asmorik zegoen ala ez.
- b) Arau-hauste bat baino gehiago egin izana, ebazpen sendoz hala erabaki denean.
- c) Foru lege honetan tipifikatutako izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egiteagatik berrerorlea izatea, ebazpen sendoz hala erabaki denean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo lau urteetan.
- d) Ingurumenari zein pertsonen osasunari eragindako kalteak, edo haien segurtasunerako sortutako arriskua.
- e) Arau-haustea eginez lortutako mozkina.
- f) Arau-hauslearen ahalmen ekonomikoa.
- g) Egitate arau-hausleek ingurumenaren ikuspuntutik sentibera den edo ingurumen-babesen bat duen eremuren batekin duten harremana edo lotura astungarria izan da.
- h) Aringarri modura hartuko da espedientea hasi baino lehen neurri zuzentzaileak hartu izana arau-haustetat jotako jarduera jakin baten ondorioz ingurumenari eragindako ondorio kaltegarriak gutxitzeko edo konpontzeko asmoz.

2. Emisioaren muga-balioen gainditzea zuzentzeko neurriak hartzetik datorren kostua ez da kontuan hartuko zehapena gutxitzeko orduan.

3. Isunaren zenbatekoa arau-haustea egiteagatik lortutako mozkina baino gutxiago denean, zehapena gehitu ahalko da, arau-hausleak ateratako mozkinaren zenbatekoa hirukoizteraino, gehienez.

4. Nafarroako Gobernuari dagokio isunen zenbatekoak aldian behin berrikusi eta eguneratzea.

127. artikulua. Zehapen osagarriak.

1. Zehapen organoak, arau-hauste oso astunak egiten direnean, erabaki ahalko du zehatutako pertsona fisikoari zein juridikoari emandako laguntza ofizialak etetea edo pertsona fisiko zein juridiko horrek eskatutako laguntza ofizialak ukatzea. Horretarako, kasuko ebazpena aipatutako laguntzen kudeaketaren arloan eskuduna den organismoari jakinaraziko zaio.

2. Halaber, gaiari buruzko legerian ezarritakoarekin bat, arau-hauste astunengatik eta oso astunengatik zehapena ezartzen zaien pertsona fisikoei edo juridikoei Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoekin kontratuak egiteko gaitasuna kendu ahal izanen zaie hiru eta bost urte bitarteko epe baterako, hurrenez hurren, ezarritako zehapena irmo bihurtzen den egunetik zenbatzen hasita.

3. Halaber, zehapen gisa, enpresa edo profesional erantzuleari ordainarazi ahal izanen zaizkio ikertutako arau-haustea egiaztatzeko egin diren analisisien gastuak, bai eta laginak hartzeagatik edo kontroletan produktuak hondatzeagatik administrazioak eman dituen kalte-ordainak ere.

128. artikulua. Zehapenak pilatzea.

1. Egitate eta oinarri juridiko berberengatik arau-hauslea foru lege honi eta aplikatzekoa litzatekeen beste legeren batengatik edo gehiagorengatik zehatu ahal izatea gertatuko balitz, arau-hausteen artean larritasunik handienekoari dagokion zehapena ezarriko zaio.

2. Zigor edo administrazio arloko zehapena jaso duten egitateak ezin izanen dira berriz zehatu, baldin eta berberak baldin badira subjektuak, egitateak eta oinarriak.

3. Zehapen-prozedura bat hasi ondoren ikusten denean egotzitako egitateak delitu edo falta bat izan daitezkeela, Ministerio Fiskalari helaraziko zaio hori, eta une horretan bertan zehapen-prozedura administratiboa etenen da, egitate, subjektu eta oinarrietan arau-hauste administratiboaren eta arau-hauste penalaren artean identitatea dagoen kasuetan. Etete horri eutsiko zaio agintaritza judizialak prozedura amaitzen duen ebazpen irmoa eman arte, edo jarduketak largetsi edo artxibatu arte, edo espedientea Ministerio Fiskalari itzuli arte. Delitu edo faltarik ez dagoela iritiz gero, administrazio-organo eskudunak zehapen-espedientearekin aurrera segituko du.

4. Epailen ebazpen irmoan egiazkotzat hartzen diren egitateak lotesleak izanen dira administrazio-organoarentzat, epailen erabaki irmoaren edo Nafarroako Administrazio Auzitegiaren erabaki irmoaren ondotik segitzen den prozeduraren tramitazioan.

129. artikulua. Berrezartzeko betebeharra.

1. Ezartzen den zehapen penal edo administratiboa gorabehera, arau-hausleak kaltetutako ingurumena berrezarri edo leheneratu beharko du egindako arau-haustearen aurreko egoerara ekartzeko, halakorik egin daitekeenean; bestela, konpentsazio-neurriak ezarri beharko ditu.

2. Halaber, eragindako kalte-galerengatiko kasuko kalte-ordaina ordaindu beharko du arau-hausleak. Administrazio publikoei eragindako kalte-galerengatiko kalte-ordaina bide administratiboan zehaztu eta bilduko da.

3. Gainera, arau honetan aurreikusitakoaren arteko arau-hauste batek ingurumen-kalte bat eragiten duenean, ingurumen-erantzukizunari buruzko araudian ezarritakoaren arabera jokatu da, kasua bada.

130. artikulua. Zehapenen publizitatea eta Arau-hausleen Erregistroa.

1. Arau-hauste oso asun, astun eta arinengatik ezarritako zehapenak, asmoa egiaztatuta dagoenean, argitaratu egingen dira.

2. Publizitate horrek honako hauek jaso beharko ditu: pertsona fisiko edo juridiko erantzuleen izen-abizenak zein deitura edo arrazoi soziala; arau-hausteen mota eta izaera; zein produktu, jarduera edo zerbitzuri buruzkoak diren, eta ezarritako zehapen nagusia. Datu horiek Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta gehien zabaltzen diren hedabideetan argitaratuko dira eta arau-hausleak ordainduko ditu argitalpenaren gastuak.

3 Nafarroako Ingurumenaren Institutuak Nafarroako Foru Komunitateko ingurumen-arloko arau-hausleen erregistroa sortuko du. Erregistro hori publikoa izanen da eta bertan Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren ebazpen irmoz zehatutako pertsona fisiko zein juridikoak inskribatuko dira.

4. Irmo bilakatzen den zehapen bat ezartzen duten organo guztiek Nafarroako Ingurumenaren Institutuari komunikatu beharko diote ebazpen hori, arau-hausleen erregistroan kasuko idatzoharra egin dadin.

5. Foru Komunitateko administrazio publiko guztiek arau-hausleen erregistro horretarako sarbidea izanen dute, kontsultak egin ahal izateko, zehapen-prozedura bat hasi behar deneko arau-hauste baten erantzuleak ingurumenaren arloko arau-haustek behin baino gehiago egin dituen edo berrerori den egiaztatze aldera.

131. artikulua. Ordezko ingurumen-prestazioa.

1. Behin zehapen-prozedura hasita, ustezko erantzulea den pertsonak aukera izanen du, isun gisako zehapenaren ordezkari ingurumenari on egingen dion ingurumen-arloko leheneratze-, kontserbazio- edo hobekuntza-prestazio bat eskatzeko, isuna jartzeko eskumena duen organo eskudunak ezartzen dituen baldintzak eta moduak betez.

2. Halaber, behin zehapen-prozedura amaitu ondoren, eskatu ahal da isun-zehapena ezarri beharrean ordezkari ingurumen-prestazioa ezar dadila.

3. Baldin eta egiaztatzen bada ordezkari ingurumen-prestazio hori ez dela bete, bete ez den prestazio horren bi halako den prestazio bat ezarriko da, baina horrek ez du eragotziko kasuko zehapen-espeditentza izapidetzea.

II. KAPITULUA **Zehapen-prozedura**

132. artikulua. Zehatzeko ahalmena.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoari dagokien ingurumenaren arloko zehapenak ezartzeko ahalmena, legez eta erregelamenduz xedatutakoaren arabera.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari egokituko zaio zehatzeko ahalmena egikaritzea, arau-haustek foru lege honen aplikazio esparruaren menpean jarritako jarduera eta instalazioei buruzkoak badira eta esku-hartzea administrazio horri badagokio; horren barnean sartzen dira foru lege honen IV. tituluaren jasotako jarduketak direla-eta egindako arau-hauste guztiak.

3. Zehatzeko ahalmena egikaritzea toki entitatei egokituko zaie, bakoitzaren eskumenen arabera, arau-haustek jarduera sailkatuaren udal lizentziarekin edo erantzukizunpeko adierazpenarekin zerikusirik dutenean.

4. Foru Komunitateko Administrazioak, jakiten duenean toki entitate batek zehatu beharrekoa den arau-hauste administratibo bat egiteagatik zehapen-espeditentza administratibo bat ez dela hasi, toki entitate horri eskatu ahal da bere ahalmenak egikaritu ditzan.

Baldin eta toki entitateak ez badio jasotako errekerimenduari erantzuten, hori justifikatzeko inongo arrazoi baliodunik gabe, Foru Komunitateko Administrazioak edukiko du arau-hausteari dagokien egitea zehatzeko ahalmena.

133. artikulua. Zehatzeko eskumena.

1. Foru lege honetan araututako arau-haustengatik zehatzeko ahalmena egikaritzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumena denean, honako hauei egokituko zaie zehapen-prozedurak ebaztea:

a) Nafarroako Ingurumenaren Institutuko zuzendariari, arau-hauste arin zein astunak direnean.

b) Ingurumen-arloko eskumenak dituen departamentuko titularrari, arau-hauste oso astunak direnean. Dena dela, 600.000 eurotik gorako isuna dakarten arau-hauste oso astunak direnean, eskumena Nafarroako Gobernuarena izanen da.

2. Arau-hauslea administrazio publiko bat edo haien menpeko entitate bat denean, eta zehapen-ahalmena egikaritzea Foru Komunitateko Administrazioaren eskumena denean, zehatzeko eskumena Nafarroako Gobernuarena izanen da.

3. Zehatzeko ahalmena egikaritzea Toki Administrazioaren eskumenekoa bada, aurreko artikuluan xedatutakoari jarraituz, tokiko araudian ezartzen den organo eskudunak izanen du zehatzeko eskumena.

4. Kasu guztietan, zehapen-prozeduraren instrukzioa ebazpena emateko eskuduna den organoaz beste bati egokitu beharko zaio.

134. artikulua. Administrazio prozedura.

Zehapenak dagokion zehapen prozeduraren instrukzioaren bidez ezarriko dira, ingurumenari buruzko araudian edo foru araudi orokorrean aurreikusita dagoen bezala edo, bestela, administrazio prozedura erkidearen Estatuko legerian aurreikusita dagoen bezala.

135. artikulua. Prozeduraren amaiera.

1. Prozedurari amaiera emateko ebazpena gehienez ere sei hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko zaie interesdunei prozedurari hasiera emateko ebazpen administratiboa eman zen egunetik kontatzen hasita.

2. Ebazpena arrazoituta egonen da, eta espedientean planteatutako auzi eta gai guztiak ebartziko ditu.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan jasotakoaren aurkako xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehenengoa. Indarra hartzea.

1. Foru lege honen V. titulua indarrean sartuko da foru lege honen 22.3 artikuluan xedatzen dena betez onetsi beharko den foru legea indarrean sartzan den egun berean; izan ere, foru lege horrek garatuko du zein kasutan aplikatu beharko den esku-hartze administratiboko tresna bakoitza.

2. Foru lege honen gainerako tituluak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko dute indarra.

Azken xedapenetan bigarrena. Arau-garapena.

1. Foru lege honek indarra hartu eta 3 hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak honako hauek garatu ditu foru dekretuen bitartez:

– “Nafarroako Ingurumenaren Institutua” erakunde autonomoa sortzea (haren egitura eta eginkizunak ere ezarriko ditu);

– Nafarroako Ingurumen Informazioaren Sarearen funtzionamendua, egitura eta edukia;

– 93/2006 Foru Dekretua foru lege honen arabera gaurkotzea eta egokitzea, arau-hausteei eta zehapenei dagokienez eta ingurumen-arloko prozedura administratiboari dagokionez.

– Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren osaeraren aldaketa: ingurumenaren aldeko erakundeek ordezkaritza handiagoa edukiko dute, kideen herena izan arte.

– Foru lege honen 70. artikuluan aurreikusitako erregistro publikoa.

Azken xedapenetan hirugarrena. Instalazio eta jardueren bete beharreko baldintza orokorrak.

Nafarroako Gobernuak foru dekretu bidez onetsiko du 53. artikulua bat apartatua aipatutako baldintza orokorren erregulazioa, zeina aplikatzekoa izanen baita berriazko ordenantza bat ez duten udalerririk guztietan.

Azken xedapenetan laugarrena. Natur baliabideen erregulazioa.

Foru lege hau indarrean sartzan denetik 6 hilabeteko epean, Nafarroako gobernua foru lege proiektu bat egin beharko du, modu xehakatu eta zehaztuan erregulatuko duena ingurumenaren elementuen kalitatearen babesa. Gutxienez ere titulu honetan aipatzen direnak jaso beharko ditu.

Azken xedapenetan bosgarrena. Ingurumen-ikuskapenaren erregulazioa.

Nafarroako Gobernuak foru dekretu bat onetsiko du ingurumen-ikuskapenaren eginkizunaren egikaritzea arautzeko; haren gutxieneko edukia foru lege honen 93. artikuluan aurreikusitakoa izanen da.

Azken xedapenetan seigarrena. Erregulazio fiskala.

Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari behar diren xedapenak eman ditzan eta beharrezko izan daitezkeen foru lege proiektuak onets ditzan foru lege honetan jasotako jarduketak zergapetuko dituzten tributu, tasa edo/eta prezio publikoak erregulatzeko.

Azken xedapenetan zazpigarrena. Ingurumen-araudiaren kodetzea.

Foru lege hau indarrean sartzen denetik 3 hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak kodetze-batzorde bat sortuko du, zeina organikoki Nafarroako Ingurumenaren Institutuaren menpekoa izanen baita; haren xedea izanen da bi urteko epean ingurumena dela-eta garrantzia duen arau guztiak biltzea Ingurumenaren Kode batean, zeina foru lege bidez onetsiko baita.